


GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

72. zenbakia

95eko ekainak 9



Uda-berriak

GOIERRI

- Autoen garbiketa eskuz
- Barruen garbiketa
- Olio aldaketa



☎ 88.73.36
Mendeurrena, 4

BEASAIN (Seat Zalata parean)
Larunbatetan egun guztian zabalik
igandetan goizean zabalik

ETXEBIZITZA ETA LUR-SAILAK SALGAI IDIAZABALEN

1.- 650 m²ko **partzela**, etxebizitza bat edo bi eraikitzeko aukerarekin, Goatse inguruan.

2.- **Txalet** bifamiliarrak, guztira 250 m²ko partzelarekin. 180 m² 3 solairuetan eraikiak.

3.- **Apartamentuak**, 55 eta 60 m²koak, Zelaako auzoan.

Guardi Poligonoan **partzela industrialak** salgai: 18.000 pzta. m²ko.

Ezolatza Poligonoan, N-1 aren ondoan, **partzela industrialak** salgai: 22.000 pzta. m²ko.

Informazioa Idiazabalgo Udaletxean. Tfnoa.: 18 71 00



MAIZPIDE
euskaltegia

☎ 88 92 31 / 32

LAZKAO

XXI. UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

- Uztaileko ikastaroa: 3-21
- Abuztuko ikastaroa: 1-25
- Iraileko ikastaroa: 4-29

Matrikula: maiatzaren 9tik aurrera
HABE-ren dirulaguntzaz



itxura baino
gehiago...

ANtza

FOTOKONPOSAKETA

INPRIMATEGIA

Industrialdea 1-2 • ☎ (943) 37 15 45 – Faxa: (943) 36 10 48 • 20160 LASARTE-ORIA

GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA
Argitaratzailea:
 "Goierritarrak" Kultur
 Elkartea.
Dorre-etxea, 1.
(Correos-gainean).
Tfnoa: 889612.
Faxa: 882719.
124 posta kutxa,
Ordizia.

Zuzendaria:
 Loinaz Agirre.
Erredakzioa:
 Jon Arano, Mikel Albisu.
Publizitatea:
 Argider Mujika.

Erredakzio Batzordea:
 Dionisio Amundarain, Jon
 Arano, Mikel Albisu, Jon Ima-
 nol Iturrioz, Patxi Zubizarreta,
 Ane Martin, Loinaz Agirre, Ne-
 kane Altuna eta Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
 Ana Irastorza, Rufino Iraola,
 Jon Aizpurua, Josune Amonda-
 rain, Izaskun Salazar, Aitziber
 Murua, Pilare Mujika, Edurne
 Albizu, Iñaki Murua, Gabino
 Murua eta Aloña Galarraga.

Azaleko argazkia: Dioni.
**Fotokonposaketa eta maketa-
 zioa:** GOIERRITARRA.

Inprimaketa: ANTZA, S.A.
 (Industrialdea, 1-2. Lasarte-
 Oria)

Tirada: 4.900 ale. 4.700 harpi-
 dedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76
GOIERRITARRA ez du
 bere gain hartzen derrigorrez,
 aldizkarian adierazitako esa-
 nen eta iritzien erantzunkin-
 zunik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



GOIERRITARRAren zenbait berri...

Eman behar dizkiogu irakur-
 leari oraingoan. Batetik, al-
 dizkari honen sortzaile, zu-
 zendari eta "anima" izandako
 Jon Mikel Arano laister ba-
 dihoakigula erredakziotik
 ("Goierritarrak" K.E.-ko
 lehendakari kargua uzten du,
 aurrerantzean hamabosteka-
 rian kolaboratzen segituko
 badu ere), beste zenbait kaze-
 tal eta literatur proiektu bu-
 rutzera. Zorte on opa diogu.

Bestetik, aipatu, "Goieki"
 eta Goierriko Udalek ez di-
 gutela zehaztu oraindik aur-
 tengorako dirulaguntza zein
 izango den. Gure eskea, go-
 goratu, herri bakoitzeko biz-
 tanleko 100 pezetakoa da (4
 milioi guztira). Iaz 75 peze-
 takoa zen (3 milioi inguru) eta
 hona hemen herri bakoitzak
 eman ziguna: Ataun: 124.625.
 Arama: 11.400. Al-
 tzaga: 7.125. Beasain: 933.900.
 Gabiria: 33.600. Gaintza: 10.500.
 Idiazabal: 150.000. Itsasondo: 45.900.

Lazkao: 273.950. Legorreta:
 109.875. Mutilloa: 13.875.
 Olaberria: 80.850. Ordizia:
 700.050. Ormaiztegi:
 93.750. Segura: 93.375. Zal-
 dibia: 115.875. Zerain:
 62.500. Gabiriak 95erako
 eskatutako dirulaguntza or-
 daindu du dagoeneko. Esker-
 tzeakoa da.

Elgoibarko "Elgoibarren"
 -ek 7 bat milioi, Bergarako
 "Berrigara" 6 bat, Arrasa-
 teko "Arrasate Press"-ek
 12-13... Goierriko 40.000ri
 baino biztanle gutxiagori
 erantzuten dieten herri-al-
 dizkariak jasotzen dutenare-
 kin ezin konparatu, beraz. Ez
 genuke pisu haundirik Goie-
 rriko Udalganga utzi nahi eta
 gainontzeko instituzioei ere
 eskatu dizkiegu laguntzak.
 Hala ere, 16 milioiko presu-
 postuaren ia %70a geuk bete
 behar dugu eta 3 bat milioiko
 defizita geratuko zaigu 95an.
 Animo!

Besteek esana

Ordiziako istiluak

Orain dela 4 urte neure
 burua era publikoan gi-
 zartean inplikatzeko era-
 baki nuen, Ordiziako
 Udaleko partaide bezala.
 (...) Geure kezkak batzu-
 tan desberdinak dira,
 beste batzutan ez, baina
 denok dugu helburu ber-
 bera: Ordiziako interesak
 defenditzea. Orain hila-
 bete batzuk Kepa Korta
 eta orain berriz Eusebio
 Iziar eta bere emaztea den
 Mari Anjeles, irainduak
 izan dira euren bidean
 aurkitu duten guztia txi-
 kitu duten animagabeko
 batzuen talde baten par-
 tetik. Ordiziar hauen hel-
 burua ez zen beren herria
 defenditzea. Lerro haue-
 tatik gizarte hau hartzen
 ari den jiraren aurrean ni-
 re kezka sakona adierazi
 nahi dut eta erabat gai-
 tzaesten ditut aurretik
 pentsatu eta planifikatu-
 tako halako ekintzen egi-
 leak (maiatzak 20koak),
 eta beroien apoiatzaileak.

Iñaki Calvillo, "DV"
95-V-27.

*Eusko Jaurlaritz-
 ko Kultura Sailak,
 Gipuzkoako Foru
 Aldundiak eta*



GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria

GOIERRITARRA dohain
 jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Lazkaoko herri-liburutegia

Gaur, Ekainaren 2an, pozik entzun dut ETB-2an "Euskadi directo"-n, liburu-irakurketaz egindako balorazioa. Egun hauetan Bilbon eta Iruñean egiten ari diren liburu-azoken berri laburra emanez, eta inolako judiziorik azaldu nahi ez balu bezala, gogoeta xume baina erakargarria egin baitu liburu-irakurketa gomendatuz.

Liburu-azoka bien aipamena eta esandako gomendioa entzuteak Lazkaoko herri-liburutegiak berrikitan sortu izan didan iritzitxo gogorarazi dit.

Denbora libre gehixeago nuela-eta, aurreko astean aipatu herri liburutegia ikustera joan nintzen; lehen aldiz. Udaletxean dago, hirugarren solairuan. Zoko-moko asko ditu. Haur batzuk eta gaztetxo bakan batzuk zeuden bakarrik; egon nintzen unetxoan liburuzaina ez zegoen bertan.

Aspaldion ikusi ditudan beste herri-liburutegi batzuetako giroarekin

konparatuta, jasan ezina zen, jasan ezina zen Lazkaoko: dena hizketa, dena berriketa, dena jolasa.

Gaur berriro joan naiz. Liburuzaina bertan zegoen. Giroa aurreko eguneko bezain berritsua ez bazen ere, ez zen batere egokia irakurketarako: bikote bat matematika-ariketak egiten ozenki, haur batzuk --liburuzaina behin eta berriz isilik egoteko esatera joan zaien arren-- builaka hizketan eta farrez.

Horiek horrela, herri-liburutegia guztia beharreko aurkitu dudala esan behar. Nekez joango da bertara gazte nahiz adineko jenderik: hirugarren solairuan dagoelako, irakurtzen has-teko uzkur denari lehen pausua emanarazi liezaiokeen aldizkari edo/eta egunkari egokirik eskaintzen ez delako, lan-giro kaxkarra aurkituko duelako...

Egoera tamalgarria, beraz. Baina, zoritxarrez, pentsaera edo portaera tamalgarriago baten adierazpen iru-ditu zait: kulturari eta, zehazki, libu-

ru-irakurketari buruz gure artean dagoen axolagabekeriaren adierazpen. Beste herri-zerbitzu batentzat ontzat emango ez litzatekeen teiltupe ondoko zoko-mokodun tokia baliozkotzat ematen da herri-liburutegiarentzat. Horrelako ikusmoldea nagusi dela ikusirik, nekez lortu ahal izango du liburuzain hoberenak ere giro egokia irakurtzera joan nahi lukeen gazte nahiz adineko jendearentzat, are gutxiago jendea irakurtzera erakartzeko sokatik tiraka bezala aritu behar izaten dela kontuan hartuz gero.

Pozgarri gertatu zait, ordea, beste zenbait jende ere toki egokiago bat beharko litzatekeela pentsatzen duela entzutea: San Prudentzio eskolako zati on samar bat edo parroikia ondoko etxe berrietako etxebehe handi bat edo...

Udalbatza berriak badu zer aztertu, zer erabaki eta zer egin txiki bat kultura aintzat hartzen duela agertu nahi badu.

Dionisio Amundarain (Lazkao)



ERRETEGIA

Kale Nagusia, 7
☎ 88 03 19
BEASAIN



ANZIZAR, S. A.

Autoelektrizitatea
eta mekanika

Volkswagen
taldea

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04 **BEASAIN**

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24
Tfno. 88 95 83

20210 LAZKAO
(Gipuzkoa)

BIÑASPRE

USAINDEGIA

EDERGINTZA

OPARIAK

Kale Nagusia, 8
ORDIZIA

☎ 88 13 37



ETXE-ZVRI
SAGARDOTEGIA

- Bataio, jaunartze, lagunarteko eta negozio bazkariak
- 2.000 pztako menu bereziak
- Karta

Sagardoa urte guzian txiritik
Aurrez deitzea komeni da

Tfnoa.: 88 20 49

OLABERRIA

Intereseko

Telefonoak

Zumarragako Eritetxea:.....	721614
Donostiako Erresidentzia:	453800
Gurutze Gorria:	272222
DYA:	464622
SOS Deiak:	088
Eguraldi informazioa:.....	094
Errepideen egoera:.....	288888
Ertzaintza (Beasain):	887350
Suhiltzaileak (Ordizia):	881362
Renfe (Beasain):	880853
Sarasola Garraioak:	880710
Pesa Garraioak:	880668
Estellesa (Donostia):	470115
Itxaropenaren tfnoa:	458005
HIES-SIDAr buruzko Inf.:	282666
Alkoholiko Anonimoak:.....	276618
Goierrri Lanbide Eskola:	880062
GOIERRITARRA	889612

Errezeta



**Ane Otegi emana
Pipas jatetxea
Lazkaomendi**

ARRAIN ZOPA

Osagaiak: olioia, tipula, egindako tomatea, zopakoa, zapoa edo 'rosadoa', almejaka, ganbak eta piper gorri txiki bat.

Ontzi batean olioia tipularekin jarri. Tipula piska bat egindakoan, zopakoa zati txikitan, egindako to-

matea, almejaka eta ur piska bat bota.

Ontzi batean, zapoa edo 'rosado'a ganbekin egosten jarri. Egositakoan arraina zati txikitan egin eta beste ontzira bota, baita ura ere.

Guztia, ordubete batean poliki-poliki egiten utzi. Ondo egitea komeni da.

Bota bertsoa



**Joxe Ramon Elorza
Gaia: Ordenadoreen menpe
Doinua: "Sentimendua sartu zitzaidan"**

Informazio prozesaketa eta datu kopurua ordenagailu baten barruan dabil biraka mundua etorkizunak programatzen du egungo bizimodua teknologiak baldintzatzen norberaren ingurua zaldi hortara igo ez dena asto gainean dihua. (bis)

Baliabide ugari eta egundoko almazena presaka bizi geran honetan kaxa preziatuena auskalo zeinek ipini zion ordenadore izena izenak izen oraindik ere asmatzeko dagoena mundu hontako ordenik eza ordenatuko duena. (bis)

OSASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierrri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

ILEAPAINDEGI
MISTOA
Xerlo

Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arte) BEASAIN
Tfnoa.: 16 11 05

IKASTEK AKADEMIA

Uztailan eta abuztuan

UDA IKASTAROAK

- maila eta arlo guztiak
- laguntza pertsonalizatuak
- irakaslego trebetua
- kalitate eta profesionaltasuna

Informazioa 3etatik 8etara

☎ 16 01 20

Joan Iturralde, 5 BEASAIN



ELECTRO ORIA,

SALMENTA - ZERBITZU TEKNIKOAK

SATELITE BIDEZKO ANTENAK
TELEFONO MUGIKORRAK
AUTO-IRRATIAK
VIDEO-HIFI

TB-ak

Tfnoa. eta faxa: 16 05 33

Nafarroa Etorb., 7 BEASAIN

Salerosketak

□ 80-200 mm-ko zoom objektiboa salgai, Pentax baionetarako. Merkea. 887489.

□ Karrerako bizikleta saltzen da, 8.000 pezetan. 160490.

□ Akordeoi bat saltzen da "Pigini" markakoa, 120 bajukoa eta "Master de Lujo" markakoa. Oso egoera onean. 80 01 93.

□ Ford Fiesta, diesela, (SS-Z) saltzen da. 88 86 28.

□ Urtebeteko bizikleta kua dro bat saltzen dut (18 pulgadatakoa), txikia gelditu zaidalako. Specialiced markakoa, 5 urteko garantia dauka. Salneurria eztabaizatzekotan. 160160 Joxi.

Lana

□ Historialari bat eskaintzen da genealogia egiteko. 883072 (Arkaitz, iluntzeko 8etatik aurrera).

□ Administrari euskaldun bat edozein lanetarako prest. 801896.

□ Tabernan lan egiteko neska bat behar da. 880012.

□ Neska euskaldun bat prest dago etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Telf: 180413. Ana.

Etxebizitzak

□ Itsasondon pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Kanpo alderakoa. 82 m². 652571.

ANTZERKIA

✓ Beasain:

Ekainak 14, Udal Antzerki Tailerrak Valle Inclanen 'La cabeza del Dragon' aurkeztuko du ikas-tetxeentzat, Usurbe Antzokian, 15.00etan.

BERTSOAK

✓ Amezketak:

Ekainak 10, bertso saioa Zumardi Eskolako Guraso Elkartek antolatuturik, 22.30etan, Pilotalekuan. Bertsolariak: A. M. Peñagarikano, A. Egaña, S. Lizaso, X. Zeberio eta U. Iturriaga.

MUSIKA

✓ Beasain:

Ekainaren 12tik 16ra, Musika Eskolako ikasleen kontzertua, Udaletxeko Batzarre-Aretoa.

Ekainak 18, Beasaingo Musika Bandaren kontzertua San Martin Plazan, 13.00etan.

✓ Ordizia:

Ekainak 15, Musika Eskolako ikasleen kontzertua 19.30etan Herri Antzokian.

Ekainak 18, Beti-Ar gi Bandaren kontzertua, Plaza Nagusian, 13.00etan.

IKUSENTZUNEZKOAK

✓ Beasain:

Ekainak 15, 'Antartida eta Indonesia'-ri buruzko diapositibak eskainiko ditu Marronek La Salle ikastetxean, 20.00etan, AEK- k antolaturik.



Ekainak 19, Kepa Gonzalezen 'Gipuzkoa 1915-1940' diapositiba bilduma, 19.00etan, Jubilatu Etxean.

BESTELAKOAK

✓ Lazkao

Ekainak 9, arratsaldeko 8etan Udaletxeko Areto Nagusian, VI. Gerriko Ikerlan Sarietako sari-banaketa.

✓ Ordizia:

Ekainak 10, magia saioa Rafa Aldasoro zenaren omenez, 22.30etan, Barrenan.

ZINEA

✓ Beasain:

Ostirala 9, "Estallido", 7,30-10,15.

Larunbata 10, "Estallido", 7,30-10,15.

Igandea 11, "Estallido", 7,30-10,15.

Astelehena 12, "Estallido", 7,30-10,15.

✓ Ordizia:

Ostirala 9, "Tierra y libertad", 10,15.

Larunbata 10, "Tierra y libertad", 7,30-10,15.

Igandea 11, "Asterix en America", 4,45; "Tierra y libertad", 7,30-10,15.

Astelehena 12, "Tierra y libertad", 7,30.

Ostirala 16, "Causa justa", 10,15.

Larunbata 17, "El hijo de la Pantera Rosa", 7,30-10,15.

Igandea 18, "El hijo de la Pantera Rosa", 4,45; "Causa justa", 7,30-10,15.

"Astelehena 19, "Causa justa", 7,30.

ERAKUSKETAK

✓ Beasain:

Ekainaren 10etik 30era bitartean, Mikel Mitxelena- naren argazki erakusketa, Aterpe Tabernan.

Creativos

Diseinu Grafikoa eta Publizitatea

Diseinu Grafikoa

Logotipoak, Katalogoak, Liburuskak, Packaging, Buzoiak, Txartelak, ... e.a.

Serigrafia

Poloak, Kamisetak, Txanoak, Jaietako Zapiak, Boligrafoak, Pins, Piskailuak, ... e.a.

Errotulazioak

Ibilgailuak, Denda eta Enpresak, Señaleztapena, Argizkoak eta Neonezkoak.

ORDIZIA ☎ 16 12 87 - PRUEBAS EN 24 HORAS - LEGAZPI ☎ 73 43 61

Pintura Erakusketa



BARRENA PINTURA
TAJLERRA

(Patxi Moralesen ikasleak)

✓ **Ordizia:**

Ekainaren 16ra bitartean, Barrenako pintura tailerreko ikasleen pintura erakusketa.

Ekainaren 17tik 30era, Rafael Cresporen pintura erakusketa, Barrenan.

Ekainaren 19ra bitartean, nazioarteko kirol argazki lehiaketa, Barrenan.

Ekainaren 18ra bitartean, Beti Argi bandaren 15. urteurreneko erakusketa, Barrenan.

KORPUS EGUNA

✓ **Ordizia:**

Ekainak 18 10,00etan Diana, **12,00etan** Prozesioan parte hartzea. Meza Nagusiaren ondoren, **13,00etan,** kontzertua Enparantza Nagusian, eta hori bukatzerako Beti Argiko partaideak diren eta izan diren guztiek pieza pare bat joko dituzte. Ondoren

bazkaria musikaz alaitua. Aipatu ekainak 10etik aurrera erakusketa bat paratuko dutela Barrenan Bandaren historiako zenbait elementurekin: argazki, sari, jantzi, instrumentu, e.a.

✓ **Legorreta**

Ekainak 17: 10.00: Diana dultzainariekin. **11.30:** Bilkoinek antolatutako Herri Krossa. 2 lasterketa: 11 urte bitartekoen zat bat eta bestea 12 urtetik gorako korrikalarien zat. **13.30:** Herri Krossaren sari banaketa. **18.00:** VI. Ardo dastaketa txapelketa. **18.30:** Udalak ardo bikain bat eskainiko du herritar eta bisitari guztientzat. 'Nekaezinak' txarangak alaitua. **19.30:** usariozko merienda plazan, txarangak alaituta. Ondoren goizalderarte kalejira eta dantza saioa 'Nekaezinak' txarangarekin.

KULTUR ASTEA

✓ **Itsasondo**

Ekainak 9, 19.30etan, Jose Ramon Agirre "Marron"-en Alaskako diapositiben emanaldia, Erretoretxean. **21.00etan,** afaria "Arbel Aitz" Elkar-tean, NARBarte eta Munduate bertsolariek eta herriko trikitilariak lagundurik.

Ekainak 10, 22.30etan, "Eskola" dantza taldearen ekitaldia frontoian.



MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Ekainak 11, Urkiola-Anboto (1.331 m.) mendi irteera.

Ekainak 18, Nazar-Joar-Kodes 81.418 m.).

Ordiziako mendizaleak:

Ekainak 10, Arlaban-Otzaurte-Etxegarate.

Ekainak 18, Larraitz-San Migel.

Idiazabalgo mendizaleak:

Ekainak 18, Altzo-Otsabio.

Zaldibiako mendizaleak:

Ekainak 17 eta 18, Piedrafita-Panticosa.

GOARDIAKO BOTIKAK

Ekainak 9: Larnaga; **10-11:** Urbizu; **12:** Cuesta; **13:** Arriola; **14:** Urbizu; **15:** Atorrasagasti; **16:** Azpilikueta; **17-18:** Atorrasagasti; **19:** Jauregi; **20:** Larnaga; **21:** Cuesta; **22:** Arriola.

Bertako onddoak

Bertako onddoak (5 bat kilo) agertu ziren lehenengoz Ordizian. 3.500ean saldu zen kiloak. Kanpoko onddoak ugariagoak izan ziren (2.000-3.000). Eta zizak berriz, aurrekoetan baino gutxiago, 4.000an. Arkumeak, 76 buru, 475 eta 500 pezeta bitartean saldu zen.

Gainontzean, beste nobedaderik ere izan zen: bertakoetan franbuesa edo magurdiak (500 pzta.n), eta kanpokoetan brinoin zuriak (450-500an), zuztarrik gabeko gereziak (350ean), udareak (375ean) eta aran gorriak (290ean).

Bestelakoan prezioek hortxe ari dira batzuk gora eta besteak behera. Bertakoei dagokionean, marrubiak 300-500ean, ilarrak 350ean, patata 95-125ean eta baba berria 100-125ean. Eskarolarik ez dago jada. Kanpokoetan berriz, meloiak (225), patatak (85-100) eta piper gorriek (200-250) behera egin zuten. Kiwiek (250-300) gora.

Arrainetan, legatza 1.820 pezetan zegoen, itsasoilarra 1.120an, mihia-rraina 1.690ean, sardinak 520an, txitxarro handiak 820an eta antxoak 700ean. Txipiroirik ez zegoen.

Ana Irastorza



**ZEGAMA
OKINDEGIA**

*Eskuz egindako
ogi naturala*

80 10 66
80 10 70 (Etxea)

Olaberria Kalea, 6
ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Osaki belardendan, Igartzeta Oletako kioskoan, Begue janaridendan, Montoia harategian, Eroslen.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardendan, Muño denda Urdanetan.

Zegaman: Kooperatiban, Maria Jesusen denda, Arrondon.

Segurako Erosle eta **Idiazabalgo** Alda-nondon.



□EUSKADIKO XIX. DANTZA TXAPELKETA SEGURAN.

Ekainaren 18an izango da. Baldintzak: bikoteko batek 15 urte baino gehiago izatea eta lagunak 13 urte beteta edo lehiaketaren egun berean betetzea. Bikote bakoitzak Euskal Herriko herri bat ordezkatu behar du. Aurkezten diren bikoteak 12 baino gehiago baldin badira, txapelketako egunean bertan egingo da kanporaketa. Finalean, fandangoa txistuz eta ariarina trikitiaz dantzatuko dute. Jantzi tradizionalak eramatea beharrezkoa da. Erritmoa, zailtasun-eki-

mena eta osotasuna hartuko ditu kontutan epaimahaiak. Sariak: 1.go bikoteak urrezko plaka, txapela, zapia, makila eta 75.000 pezeta jasoko ditu; 2.ak zilarrezko plaka eta 40.000 pzta.; 3.ak brontzezko plaka eta 35.000 pzta; 4. bikotetik 10.enera 30.000, 25.000, 22.000, 20.000, 18.000 eta 15.000 pzta. hurrenez hurren. Izenematea Segurako Udaltxean (telf: 801096) egin beharko da ekainaren 9a baino lehenago, harremantarako telefonoa eta NANaren fotokopiak bidaliz.

□LAZKAO TXIKI BERTSOPAPER

LEHIAKETA antolatu du 4.goiz Ordiziako Argi Berri Elkarteak. 3 maila banatzen da:

Gaztetxo maila: 13 urte artekoentzat. Bertso-paper bakoitzeko idatzi beharreko bertsoak gutxienez 6 eta gehienez 8 izango dira. Neurria eta

doinuak libreak izango dira. Gaia berriz, 'udalekuak'. Sariak: 1.goak 20.000 pzta.; 2.ak 10.000; eta 3.ak 5.000.

Gazteen maila: 14-18 urte artekoentzat eta **helduen maila**, 1976ean edo aurretik jaiotakoentzat. Bertso-paper bakoitzeko idatzi beharreko bertsoak gutxienez 8 eta gehienez 12 izango dira. Gaia, neurria eta doinua, libreak izango dira. Sariak: gazteen mailan, 1.goak 30.000 pzta.; 2.ak 20.000 eta 3.ak 10.000. Helduen mailan, 1.goak 50.000 pzta.; 2.ak 40.000 eta 3.ak 30.000.

Nahi adina bertso-paper bidal ditzake partehartzailerako bakoitzak. Bertsoek jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Lanak bidaltzerakoan originala eta 4 kopia bidaliko dira. Uztailaren 1aren aurretik bidaliko dira lanak, Ordiziako Gipuzkoa kaleko 15. zenbakira. Informazio gehiago 885228 eta 889053 telefonoetan duzu.

□AEKren MANIFESTAZIORAKO AUTOBUSA.

"Euskararentzat akordioak orain!" lema-pean AEKk ekainaren 10erako Bilbon antolatu duen manifestaziorako autobusa jarri du Goierriko Goiztir AEKk. Autobusa arratsaldeko 3.30etan irtengo da Ordizian arboledatik eta Beasainen Estatuatik. Autobus tikeak ondorengo lekuetan eskura daitezke: Ordizian Koio-ten, Pottolon, Irrikin eta Euskaltegian. Beasainen Basakanan, Ñañarrin, Arranon eta Euskaltegian.

□EUSKALDUNON EGUNKARIAREN JAIRAKO AUTOBUSA.

Ekainaren 11n Arrasaten ospatuko den Euskaldunon Egunkariaren jaira joateko autobusa antolatu du Ordiziako "Hitzaro" taldeak. Goizeko 11etan aterako da Ordiziako arboledatik. Tikeak 800 pezetan daude salgai Pottolo-enea, Orlegi, Olano, Haritza, Batzokia eta Irriki tabernetan.

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA


Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko Tfnoak: 885750 - 885754
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

Lirain

Lurrindegia eta Opari Gaiak

San Inazio, 14 ☎ 88 93 90 BEASAIN



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxegintzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



**Barandiaran
ZERAMIKAK**

Senpere, 7 ☎ 88 79 72
BEASAIN

Bertsoz bertso

"Hitzetik Hortzera" programak iraun zuen artean, ez nion bertsozale bati ere bere edukiaren aurkako kritikarik entzun baina, oraingo programa dela eta, asko eta askok galdetzen dit ea plazetan ez al dugun bertso berririk botatzen, ETB duela 3-4 urteko bertsoak ematen aritzeko.

Eta erantzuna bat da: irratietatik nahiz telebistetatik behin, bitan edo gehiagotan entzundako bertsoz osatutako programa egitearen arduradun eta erantzule bakarra ETB da. Orain emittitzen ari den "Bertsoz bertso" saioa, Bertsolari Elkartea eta bertsolarion iritzien kontra ezezik, bi aldeok sinatutako kontratuak (joan zen urtean bukatu zenak) oinarri zuen filosofia osoaren kontra doa, nere ustez.

Bertsogintzaren doaietako bat freskotasuna da, gaurkotasunezko emaria plazaratzea bertso egituretan. Garbi dagoena da, orain dela 3 urte hauteskunde garaian botatutako bertsoa gaur 4.enez entzuteak, ez duela ez zaletasuna pizten eta ez programaren nahiz bertsolaritzaren duintasuna gordetzen. 4 aldiz bertso berdina plaza berean botatzeak balio izan baligu ez geneukan, ez guk ere gai jartzaileek, ideia berrien bila ibili beharrik eta hala ere, "topikazo" asko botatzen dugun susmoa adierazten dio bertsozaleak, ulertu nahi duenari.

Guk bapatean topiko edo betiko arrazoiari heltzea zabarkeria izan daiteke baina, zer da orduan, pentsatzeko hainbeste denbora eduki eta, ETB egiten ari dena?

Bertsozaleak gehiegi "ase" gabe eta erretzeko arriskutik urrun gordeko dituen saioa nahi dugu, zaletua hezi eta euskaldun gehiago zaletze bidean jartzeko balio duena, bertsogintzaren esparru zabalaren irudira egokitua eta ez du inork gure baimenik izango, botatzen diren bertsoak bertsolaritzari kalte egiteko erabil ditzan, nahiz eta beste alor batzuetan oso errentagarri gerta lekizkiokkeen, argi dagoenez.

Hauxe da beraz ETB eta gure artean une honetan dagoen konponezinaren arrazoi.

Oharra: "Bertsoz bertso" saioa egiten duen langile taldeak, ez du zerikusirik gatazka honetan eta nere errespeto osoa duela garbi utzi nahi nuke.

✍️ Iñaki Murua

Beasain igoko al da 2.A mailara?



Juanito Cia
64 urte, erretiraturua
beasaindarra

Baliteke, etxeko partiduak irabazten baditu. Igoko balitz, oraingo taldearekin ez dago 2. Anondo ibiltzerik. Kanpotik ekarri beharko lirateke jokalar berriak.



J. Martin Urretabizkaia
35 urte, tabernaria
beasaindarra

Ez da igoko. Nahiko plantila motza dauka eta jokalar berriak nekatu antzean dabilta. Igotzekotan, jokalar berriak behar dira, plantila behar da eta horrek garestitu egiten du.



Iñaki Sarriegi
28 urte, ingeniaria
beasaindarra

Aurtengoz nahikoa egin du. Denboraldi ona egin duen arren, zaila du igotzea. Igandeetan partiduak ikustera ez naiz joaten, baina emaitzak segitzen ditut.



A ze flaxa!



Joandako maiatzaren 20ko Ordiziako istiluetan Dorre-etxe-ko atariko atea honela geratu zen, erre eta zulatuta, koktel bat botatzaren ondorioz. Eskerrak suhiltzaileak etorri ziren! Aldameneko "Correos" behin baino gehiagotan erasotu dute. Ordiziako Herri eta Udalarena den etxe honetan, "Goimen", Goierriko Nekazarien Etxea, Diputazioko Guarda eta Kamara, Kiroletako eskualde bulegoa, Enirio-Aralar Mankomunitatea, Beti-Argi Banda, Laguntasuna Errondaila, E.P.A., Elizako korua, "Hezi" kolektiboa eta GOIERRI-TARRAREN egoitzak daude. Klarita Apalategi emakumea hemen bizi da, gainera. Etxe zahar honetan dena egurrezkoa da eta halako gertaerek arrisku bizian jartzen digute.

CAMPING



ARALAR

- Aralar mendira ateraldiak eta bertako DOLMENAK ezagutzeko aukera
- ANDIA-URBASA eta SAN DONATOTIK 25 minutura autoz
- Nafarroako LARRAUN, ULTZAMA, BASABURUA, LEITZARAN, SAKANAKO BAILARETATIK GERTU
- Bizikletan eta zaldian ibiltzeko aukera

Lekunberri - Nafarroa

INGURUAK

ATERALDIK

Ekainaren 1etik irailaren azkenerarte zabalik
Urte osoan asteburuetan zabalik

- 350 pertsonentzako lekua
- Komunak eta dutxa indibidualak, berriak eta ur berokoak; dohainik
- Taberna eta jatetxe handia
- Botika, janaridenda, labanderi zerbitzua
- Igerilekua, sauna, solariuma
- Bungalow-ak
- Karabanen alokamentua
- Instalazio guztiak berrituta

☎ 948 - 50 40 11 - 50 43 26



Xabier Barandiaran
Irastortza.

A tzean geratu dira errepide bazterreko kartel irrifartsuak, komunikabideetako eztabaidak, helburu garrantzitsuenak biltzen dituzten adierazpenak eta hauteskunde prozesu bat osatzen duten elementu guztiak. Elementu hauetan edukiaren gainetik dihardu estetikak eta bigarren maila batetan geratzen dira, herritarron gehiengoarentzat, talde bakoitzaren pentsamolde eta egitasmoen azterketak, aurreko legegintzaldian buruturiko bidearen balorazio sakonak eta lehentasuna hartzen dute publizitatearen koloreek, erraz sartzen diren esaldiek eta begietara atseginak gerta ohi zaizkigun argazkiak.

Errealitatea, estetika horrek adierazten duena baino zerbait korapilotsuagoa da eta herrikide bakoitzak botoa ematerako garaian dituen arrazoiak ugariak eta oso ezberdinak dira; baina hauteskunde kanpainan herritar eta hauen ordezkari izango diren arteko harremanek garai hauetan hartu duen itxurak artekotza pobre batetara apuntatzen du. Roger G. Scharntzenbergekin Show politikoa bezala bataiatu zuena hauteskundeoro errepikatzen da. Eta erdi-purdiko filme horiek gehiegi ikusten ditugunean bezala, azkenean mundu guztia aspertu egiten da politikariak barne. Hauteskunde kanpainan, herri agintari eta herritarren arteko erlazio edo komunikazio moeta hau ordea, ondoren gertatzen denaren adierazgarri bat besterik ez da. Ezezagunen arteko norabide bakarreko elkarrizketa, azokan ematen den salerosketa bailitza. Egun, politikagintza herritarrongandik aparte burutzen den zerbait bezala bizi dugu; kanpotik eskeintzen den zerbait bezala. He-

Udal hauteskundeak

rrigintza, gehienontzat, aldika aukeraketa bat egitean besterik ez da bihurtu eta egoera horren ondorioetako bat da hauteskunde kanpainaren izaera bera.

Baina edozein erlazioan, elementuen arteko komunikazioaren izaera, erlazioa osatzen duten elementu guztiek baldintzatzen dute. Ez elementu bakar batek soilik. Herri erakunde eta herritarron arteko distantziaren arrazoiak topatzearen ahaleginetan, adibidez, bakarrik erakundeetatik jarraitzen den bidea aztertzen bada herritarron jarrera eta jokabideak ahaztuz litekeena da arazoari inoiz konponbiderik ez aurkitzea. Antzeko zerbait gertatzen da zentzu honetan planteiatu litezkeen politikaren eremuko erlazio moeta guztiekin ere. Eginbide publikoan eta orohar herrigintzaren eremuan bizi dugun krisiaz ari garenean, sarritan hitzegiten da aktore politikoetaz eta gutxiegitan herritarron izateko, pentsatzeko eta jokatzeko moduek egoera horretan ezartzen dituzten baldintzetaz.

Alderdikeriak, politikarien interes partikularrak, iruzur kasuak, hitz dotoreak eta betetzen ez diren konpromisuak, zenbait herri ordezkariaren etika falta, egoera ekonomiko larria, hitzaldi politikoek gure herri errealitateari aurre egiteko erakusten duten gaitasun eza... eta imajinatu daitezkeen kritika guztiak egiteko arrazoirik ez da falta. Eta kritika horietako asko ondo arrazoituriko kritikak dira zalantzarik gabe. Halere,

herrigintzaren eta herri artekotzaren azterketa orokor batek, ezinbestean, arazoa ikuspegi zabalago batez ulertzea eraman beharko gintuzke: erlazioaren elementu guztiak kontutan hartuz ailegia. Eta azterketa horretan, bidezkoa da, gizabanakoaren baloren nagusitasunak elkarte bizitza osasuntsu baterako oinarritzko sostengu direnak bazterreratzea ekarri duela aitortzea. Gogoratu gabe utzi ezin litekeen topiko bat.

Politikaren krisiaz hitzegiten bada, irtenbide egoki batek herrigintzaren garapen teoriko eta praktikoen etengabeko ausnarketan parte izatera bultzatu behar gintuzke guztioi dagokigun arazo bat den neurrian. Aldi berean, herritar izate horretan jarrera aktiboa hartuz eta arlo ugarietan gure partaidetza zihurtatuz: era ezberdinetako herri ekimenetan, udaleko komizioetan edota herritar guztion onerako den hartan babesa eskeiniz; jarrera kritiko eta konsziente batez, bakoitzak bere pentsamoldetik ahal duena eskeiniz baina, edozein modutan, herri eraikitze horretan langile bihurtuz. Jarrera berri batek, gaur egun herrigintzan planteiatzen diren arazoak konponduko ez dituen arren, gutxienez, aurre egiteko baldintza berriak sortuko lituzke.

Herrigintza botoa ematera mugatzen den bitartean, eginbide publikoa gutxi bultzuren zeregin moduan ulertzen den bitartean eta herrigintza beraren nondik norakoaren arrastoak ezartzea talde baten edo bestearen kontua dela pentsatzen den bitartean, jarrera horrek berak, herritarrok elkarteko partaidetzatik kanpo uzten gaitu arazoa neurri handi batetan betierekotuz.

**“Herrikide
bakoitzak
botoa
ematerako
garaian dituen
arrazoiak
ugariak eta
oso
ezberdinak
dira”**

Goierriko Udal berriak

● **ALTZAGA:** Alkate: Imanol Mujika (Altzagako Artea Taldea).

● **ARAMA:** Aramako Herri Batzarra: Joakin Mujika, Sebero Zubeldia, Joxe Mari Etxeberria, Jon Maties Bendoiro, Manuel Mari Unanue.

● **ATAUN:** Ikus Ataungo kronika.

● **BEASAIN:** EAJ: Jon Jauregi, Arantxa Aseginolaza, Ana Isabel Asla, Emilio Valles, Patxi Plazaola, Jose Antonio Guirado. HB: Txemi Arteaga, Andoni Antxia, Miren Arrate Izaguirre. PSE: Jose Luis Elorza, Fernando Boada, Alfonso Segade. EA: Idoia Arratibel, Josi Insausti, Jose Mari Sarasola. PP: Julio Herreros. IU: Eduardo Fernandez.

● **EZKIO-ITSASO:** Ezkio-Itsasoko Herrikideak: Mari Isabel Olanga, Jose Inazio Etxezarreta, Jose M. Zumarraga, Prudentzio Mujika. HB: Ximon Idiakez, Marisabel Arakistain, Maite Salutregi.

● **GABIRIA:** EA: Xabier Murua, Xabier Arratibel, Jose Kruz Baztarrika, Josu Andola, Bakarne Peñagarikano. Auzo Artea: Nikolas Igarzabal, Iñaki Maiz.

● **GAINTZA:** Gaintzako Herria Batzen: Inazio Jabier Garmendia, Joseba Miren Telleria, Jose M. Matxain, Bitoriano Garmendia, Jesus M. Garmendia.

● **IDIAZABAL:** EA: Antton Irizar,

Matias Aranburu, Xabier Imaz, Gurutze Aranburu, Jesus M. Insausti, Matias Alustiza, Andres Berasategi. EAJ: Miren Iosune Azurmendi, Jenaro Zabala. HB: Martin Lizarazu, Antonio Alberdi.

● **ITSASONDO:** HB: Joxe Mari Otegi, J.L. Aranburu, Blanka Mujika, J.M. Mendizabal, Amaia Salegi, Pedro M. Otegi, M. Teresa Etxeberria.

● **LAZKAO:** EAJ: Iñaki Estensoro, Juan Felipe Barandiaran, Gorka Lamy, Mariano Altuna. HB: Eukeni Lasa, Lurdes Azpiroz, Asier Mujika. EA: Kepa Zubiarrain, Iñaki Sarriegi. PSE: Jose Antonio Dopazo. IU: Jesus M. Saldaña.

● **LEGORRETA:** EAJ: Jose Inazio Iturrioz, J.R. Mugerza, Jose M. Ibañez, Xabier Iraola, Jesus M. Lasa. HB: Jose Luis Urretabizkaia, Alaitz Otaegi. EA: Inazio J. Puyadena, M. Pilar Martiarena.

● **MUTILOA:** M.-ko Herri Kandidatura: Jon Ugalde, Salome Olaetxea, Juan M. Telleria, Jose Lasa, J.L. Mendizabal.

● **OLABERRIA:** O.-ko Herri Elkartea: Agustin Agirre, Pedro I. Martinez, F.J. Agirre, Armando Aizkorbe, F.M. Irastorza, J.A. Aranzegi, Prudentzio Beaskoa. PSE: Enrique Lorenzo. PP: Jose Miragaya.

● **ORDIZIA:** EAJ: Juanbi Erauskin, Arantxa Genbe, Jesus M. Aldaz, Juan M.

Garcia. HB: Mirenbe Korta, Aitor Garmendia, Josu Aierbe. EA: Jose Arizmendi, Jesus M. Lariz, Raul Lakalle. PSE: Jose Manuel Ros. PP: P.I. Ganda-segui. IU: Pedro Lozano.

✚ **ORMAIZTEGI:** EAJ: Martin Perez de Albeniz, Iñaki Maiora, Iñaki Gallarraga, Roberto Bueno. EA: Jon Mikel Murua, J.M. Elizegi, Ane Lasa. HB: Pedro Jaka, Mikel Jauregi.

● **SEGURA:** EA: Karmentxu Etxeberria, Xabier Telleria, Inma Gabilondo, Mari Jose Arrondo. HB: Xabier Albizu, Rafael Gerriko, Aitzol Telleria. EAJ: Pedro M. Agirrezabal, Manu Errezola.

● **ZALDIBIA:** Jose Inazio Elizegi, Mariasun Asurabarrena, Amaia Etxabe, M. Jesus Miguez, J.R. Nazabal, J.A. Irastorza. ZUT: Migel Mari Irastorza, J.M. Luluaga, M. Rita Gorrotxategi.

● **ZEGAMA:** HB: Joxe Ramon Agirre, Ana Alustiza, Anjel Gomez, Jose Izaguirre. EA: Mari Asun Mendizabal, Segundo Oiarbide, Arantxa Albisu. EAJ: Juan Jose Gorrotxategi, Inaxio Urbizu.

● **ZERAIN:** Z.-go Herri Kandidatura: Antonio Garcia, J.M. Oria, Mariflor Mendizabal, Jesus M. Intxausti, Andoitz Telleria.

KUKO

Jatetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak eskertuko duen menua eskeintzen dizu:

Astelehenetik ostiralerara menu bereziak.

Eguerdietan 2.000 pzta. + BEZa

Toki mugatua dago, eskaerak aurrez egin.

On egin diezazula!


Berjaldegi plaza z/g
Tfnua.: 88 28 93
ORMAIZTEGI

LELAR

KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 888824
BILTEGIA: Salbatore Industrialdea. ☎ 886070
BEASAIN



Nafarroa Etorbidea. 9
Tfnua: 88 94 82
20200 BEASAIN



Giro jator eta atsegina

BASAKANA

ITURRIOZ 11
BEASAIN

GOIERRITARRA



88 96 12

Ba al dakizu?

ENIRIO-ARALARko txabolen erabilerari buruzko araudi berria maiatzaren 22an jarri zen indarrean. Araudi berriak ekarriko lukeen aldaketarik garrantzitsuenetakoa, artzaiek txabolen erabileragatik kanon bat ordaintzea litzateke, "Ardatza"k informatzen duenez. EHNE artzaiekin bildu zen Larraitzen eta bere iritziz, "Kano-naren ezarpenari dagokionean, sektorearen egoera larria kontutan hartuta, artzaiei beste gastu bat gehitzea ez du inondik inora bideragarria ikusten" sindikatuak. "Orain arte Aralarko txaboletan egin diren berrikuntz-lanen 10etatik 9 artzaien esku egon direla eta lan horiek ez direla ordainduak izan kontuan hartu behar da", diotenez.



SASIETA LEHIAKETA. Ataungo Joxemiel Barandiaran ikas-texeko 5. eta 6. mailakoek (zabor artean aurkitutako materialarekin egin-dako jostailuengatik) eta Beasaingo Alkartasuna Lizeoko 7. eta 8. mailakoek (kartelarengatik) irabazi dute, Sasieta Mankomunitateak, inguruneari zor dioten begirunea eta berau hobetzeko duten erantzukizuna indartu asmoz antolatutako lehiaketa. Plaka bana eta Urbanen egunpasa egiteko aukera izango dute. Argazki lehiaketa ere izan zen, baina saria hutsik gelditzea erabaki zuten. Lan guztiok Ordizian erakusgai izango dira ekainaren 20tik 25era Barrena Kultur Etxean.

IGARATZAKO MEZAK, maiatzeko pasata, ekainaren 18an, uz-tailaren 16an, abuztuaren 13an (San Migel ekartzen duteneko), irailaren 17an eta urriaren 8an izango dira. Lazkaoko Beneditarren esku izango dira meza ospaketa horiek eta ordua, berriz, eguerdiko 12etan. Lehenago, udaeroko igande guztietan izaten ziren mezak Igaratzan goi horietako artzai eta mendizaleentzako. Aita Alberto hil zenez geroztik, eta apaizen urritasuna dela eta, mezak murriztu egin dira.


OLABERRIKO GURASO ELKARTEA irten da garaile egin berri diren hauteskundeetan. Agustin Agirre izango da hurrengo alkatea, botuen %ko ia 73a lortu bait ditu. Guraso Elkarateak 7 zinegotzi lortu ditu; PSOE eta PPk zinegotzi bana izango dute.

ITSASOKO PLAZA BERRITUA inaguratuko da ekainaren 18an. Pilare Mujika Ezkio-Itsasoko kronistak adierazi digunez, berritze lanak bukatu direla eta, goizeko 11,30etan meza egongo da, ondoren 12,30etan inagurazioa eta luntxa.

ZAMORA BEASAINEN ENTRENATZAILEA izango da datorren denboraldian gutxienik. Errealeko jokalaria ohiak, Periko Alonsoren lekua hartuko du. Azken hau, oraindik ofiziala ez bada ere, Eibar taldea entrenatzera joango baita. Bestalde, gogoratu Beasain 2. A mailara igotzeko fasea jokatzen ari dela. Almerriaren aurka 4-1 galdu zuen eta joan zen larunbatean berriz, (ETBk eskaini zuen partidua) Valentziaren aurka bana berdindu zuen. Hurrengo partiduan Ferrol izango du etsai.

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Guzti hau irudi berri baten
hasiera baino ez da,
profesionaltasun garbiko
bidean.



Zuk badakizu Euskadiko Kutxak gogor diharduela euskal gizarte eta enpresagintzaren alde. Oso Kutxa geure-geurea dela. Euskal Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen al duzu gure profesionaltasun -eta aholkamendu- maila.

Gazteentzat, esate baterako, onura gehiago. Familientzat, interes handiagoak kontu korrontean eta ohizko libretan. Beste kutxetan baino gehiago.

Eta guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesio-naltasun garbiko bidean.

IKER SUKIAk marka berria ezarri du pisu jaurtiketan. Euskadiko errekor absolutoa hautsi du. Gogoratu, ataundarra jubenila dela oraindik. Era berean, jubeniletan, Espainia-ko marka hautsi du.

KOLDOBIKA

JAUREGI eskultore ezaguna Legorretako udaletxe berriaren fatxadan ari da, arte-lan berria eraikitzen. *Arbol* gisakoa, eskultura eta balkoiaren barandila da aldi berean. Eskultura espaloian jaiotzen da eta bere *adarrak* balkoi handi baten barandilaraino iristen dira. Bere obrarik originaletakoa den honetan, estetikari bakarrik ezin dio begiratu, funtzionala izango baita. *"Batzuk egurren artean hutsun gehiegi dagoela esaten didate; ea inor erortzen den; beste batzuk uste dute umeak eskulturatik gora igoko direla; banderak non zintzilikatuko diren galdetzen dute bestetzuk. Herriko jendeak gora begiratzen dute pasadizoan eta era guztietako komentarioak egiten dituzte. Eta hemen nago ni, nire idea aurrera eramane nahian eta dena lotzen saiatuz"*, adierazi du. Lana euskal arkitektura herrikoien antzera egiten ari da, baserrietako habeak jartzen diren bezala, elkarloturik. Udaletxeko obraren errematea "arbol" bat ipiniz egiteko aurreneko idea Legorretako

Udaleko arkitektuarena izan zen eta bere artelana egiteko askatasun osoa izan duen Jauregi enkargatu zioten.



BIXENTE

BARANDIARAN itsasondoarrak "Lanik gabe ezin bizi", bere 2. liburua argitara eman du "Auspoa Liburute-gia" famatuan. Itsasondoko Urkia auzoan orain 78 urte jaiotako hau Donostialdeko Altzara joan zen bizitzera gasetan. Memoria izugarri ona duenez, "Zaartu gabe ezin bizi", aurreko liburua eman zuen garai haietako berri

(ikus 39. GOIERRI- TARRA). Honetan ere gaztaroko oroitzapenak ditu kontagai, orain dela 60 bat urtetako bizimoduaren lekukotasuna da, hortaz. Garbera baserrian lan egiteko zaharturik egon arren, lanik egin gabe ezin etsi eta kontakizunak idazteko gutxik bezalako eskua duela erakusten digu oraingoan ere. Liburu hau egiteko izan dira 5-6 orduz mahaitik altxatu gabe egin dituen egunak, baina ez du gehiegi sinisten bere ofizio berrian, hala ere. Bertsolari izana du-gu Bixente eta bertsoa indarrean ikusten du, baina *"gu gazte ginela bertsolarien lana elkarrengandik gaizkiesaka jardutea izaten zen; joera horren aurka ahalegina egin zen, baina gaur atzera lehengora itzuli da eta nahastu samartua dago bertsolaritza"* adierazi du.

VI GERRIKO IKER-LAN SARIKETA

Aren sari-banaketa izango da ekainaren 9an, arratsko 9etan, Lazkaoko Udaletxeko Areto Nagusian. 1. saria J. M. Azurmendi preso dagoen beasaindarraren "Goierriko euskara" lanak jaso du. 2. saria Nekane Urdangarin eta Leire Munduateren "Karobizuloak Atauen" lanak eta 3.a Xabier Azurmendiren "San Adrian eta inguruen kondaira" izenekoak.



UDAL EUSKALTEGIA



LOINAZKO S. MARTIN PLAZA
KULTUR ETXEA, 1.a
Tel. 889094

UDA IKASTAROA

* Matrikula epea ekainaren 12tik 23ra

* Ikastaroa ekainaren 29tik uztailaren 28ra

* 16 urtetik gorakoentzat maila guztiak



- Mediku akupuntorea
- Pisuaren kontrola
- Estetiziena

Santa María, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA



**LANCIA
ETXE - AZPI**

88 10 61 - 88 29 46
ORMAIZTEGI



IZTUETA ZALDIBITAR KULTUR GIZON UNIBERTSALAREN BIOGRAFOA

Jose Garmendia: “Pentsatzen zuena esatera atrebitu zen Iztueta”

Juan Inazio Iztueta zaldibitar dantzari eta idazle famatuaren heriotzaren 150. urtemuga dela abuztuaren 18an eta bere herrikide, miresle eta biograforik garrantzitsuen den Jose Garmendiarengana jo dugu, erromantizismoari aurre hartu zion folklorista haren bizitza eta obran sakondu nahian.

Jose Garmendia Arruebarrena 1925an jaio, Gasteizen apaiztu 50.ean, Erroman ikasketak egin eta laister zen Andaluzian, mixiolari eta irakasle gisa: “Lo servido por lo comido”, ibili zen urtetan argindar eta ur korronterik gabeko Coto de Doñana inguruko herriketatik... Hainbat artxibo arakatuz (Indietako Artxibo Orokorra batipat), idazle emankorra gertatu da hamarkada batzutan. Josek hamaika liburu kritika, herrietako zenbait monografia eta

ermitten historia idatzi ditu (Itsasondo, Olaberria, Urtsuaran, Segura, Altzagarate, Arama, Gaintza...), ikerketa historikoko boletin ugaritan, “Abc”-en, RSBApeko idazle aberatsa, euskaltzaina dugu.

1945ean Iztueta herrikideari egin zitzaion omenaldiko programa osoa idatzi zuen. 67an folklozezalearen jaiotzaren 200. urtemuga ospatu zen eta orduan artikulu mordoa idatzi zuen Garmendiak “La Voz”, “DV”, “Unidad”, “Correo”n... 68an dantzariaren testamendu eta bere ondorengoan paperak aurkitu zituen konturatu zen bazegoela arrazoirik Gipuzkoako mugak gainditzen zituen pertsonai politifazetikoaren aztarnen bila bizitza emateko; Iztuetaren lan ineditoak argitaratu zituen, zaldibitar haundiari buruzko libururik garrantzitsuen.



“Iztueta Fundazioa”k Jose Garmendiaren 2 liburu ematen ditu argitaratu: “Juan Inazio Iztueta, Dantzarien maisu & Miscelanea”, gehi bere Hitzegia.

Oraintxe bertan ez dago beste bat argiuneak adina itzaluneak dituen Iztuetaz hainbeste dakienik. Gezurrak edo egia osoak ez direnak ezeztatu eta itzal haundiko haren bizitza eta lanak destripatu dituen honek, oraindik dokumentuak aurkitu litezkeela uste du. 36 urteren buruan erretiratu eta Donostian bizi da orain Jose. Jator bezain ezkor agertu zaigu goierritar hau: “kanpandorreko kultura aldeanoa” egiten dela, ez dela irakurtzen, itxurak bai... “Iztueta Lehiaketa” Goierri mugatzea astakeria deritzo adib., Iztuetaren figurak aisa pasatzen dituelako Zaldibia eta Goierriko mugak.

Figura guztiz interesgarria

Iztuetaren bizitza eta obrari ikuspuntu askotatik begiratu lekieke. Dudarik gabe, bere izate folkloristak, dantzen zabaltzaile izateak eta, denen gainetik, “Gipuzkoako Dantzak” idazteak ematen dio ospe berezia. Horrekin aurre hartu zien bere garaikideei eta lasai asko esan daiteke Europako (eta mundu-

Gure Jaun Juan Inazio

1767an jaio zen Juan Inazio Iztueta Etxeberria, dantzarien maisu gipuzkoarra. Ezizenez (izanez bezala) “Txuri” gisa ezagutua. 23 urterekin lehenbizikoz ezkondu zen arteko dokumenturik ez da ageri (Legorretan neskaren bat haurdun utzi bazuen ere). 1801ean, 33 urte zituela, Gaintzako eskribauaren etxean lapurreta egitearen aitzakitan atxitu zuten Ordizian. Tolosa eta Azpeitiko kartzelatan egon zen; Kontxesi Bengoetxea ezagutu zuen Azpeitikoan. Geroago Logroñoko Inkisizioaren kartzelan ere pasa zuen bolada bat eta bertan idatzi zituen Kontxesiri eskeinitako bertso famatuak. Frantses inbasioan Iztueta Donibane Lohitzunen eta Donostian bizi izango zen eta, nahiz eta bere liburutik frantsesen aurka idatzi, itxuraz “afrantzesatua” zen eta iskanbilak izan zituen. 1819an, Donostiako Miserikordiako haurrei euskal dantzak irakasten hasi

zen ordurako oso ezaguna zen bertolari eta dantzari zaldibiarra. 1824an Baroja argialetxeak Iztuetaren “Gipuzkoako Dantza Gogoangarriak” liburu kaleratu zuen. Segituan Londresen argitaratu zen, “Kontxesiri” barne.

Gerora zeladore aritu zen Donostian eta I Karlistada hasita berehala kartzelako alkaide. 3. aldiz ezkontzean 60 urte zituen, emazteak 20. Bizitzan zehar ogibide asko aldatu arren, ez zituen dantza-lanak behin ere utzi goierritar euskaltzaleak. Karlisten gerratea betean (1837) Donostia liberalean ez baino Goierri karlistan aurkitzen zen. Azkeneko urteetan asko idatzi zuen eta agintariekin harreman haundia izan zuen. 1845an, 78 urte zituela hil zen jaioterrian Iztueta, bere bizitzako idazlana, “Gipuzkoako Probintziaren Kondaira” argitaratu baino 2 urte lehenago eta 3 emazterengandik izandako 11 seme-alabetatik hiru seme bakarrik bizi zirela.

ko) lehen folklorista dugula. Vienen eta Errusiko gortean ezaguna zen liburu hori. "Bere hitzaurrean dio Elorza zentsoreak, zenbait bertso ken zitezkeela gordinak zirela eta. Aizkibelek dioenez, monjen kapelau batek ere ametituko omen lituzke letratxo horiek. Zentsorea zuhurregi ibili zen beraz. Halere, Iztuetak izan zuen aukerarik kondenatu zizkioten gauzak beste nonbait argitaratzeko, baina ez zuen aprobetxatu", biografoaren hitzetan.

Begiratzan diogun ikuspuntutik begiratzan diogula, ez da lan erraza Iztuetaren bizitzaren berri bi hitzetan ematea edota bere obrari egoki heltzea. Fausto Arozena: "figura guztiz interesgarria". Aita Villasante: "euskal arrazarekin eta bere adierazpen jatorrenekin identifikatzen den gizonaren prototipoa dugu". Madoz (1850 aurretik): "Iztueta ospetsua". Pentsa.

Apaiza izan arren, koreologo bihurriaren nolabaiteko apologista den Garmendiaren ustez, "Iztueta da gehien sustraitu zena bere garaian E.H.an eta berau gehien defenditu zuena. Herriko seme jatorrena. Lan asko egin zuen egin zituenak eginez (hiztegiak, botanikari buruzkoak, Gipuzkoako apaizen zerrenda, e.a.). Bera da lehen euskal idazle laikoa". Txindokiri buruz ere beste inor ez bezala mintzatu zen: "Aitz goititu onen erpiñera beste eguiteco bague igoric, egon izandu naiz neu bein baño gueiagotan, campo zabal icusgarriari beguira ezin aspertuz".

Bere merituz jaso eta berregin ahal izan dira euskal dantzetako asko. Iztuetaren irudiaren ezagupideari dagokionez, 1929.ean Eusko Ikaskuntzak eskaini zion omenalditik asko aurreratu da, zabalkunde lan handi eta ona egin da orohar, "baina dantzen liburua oso zaila da eta inork ez du ikerketa seriorik egin horri buruz".

IZTUETA GOGORATUZ



Juan Inazio Iztuetaren heriotzaren 150 urte

Gorri eta beltzak ikusitakoa

Josek dioenez, Iztueta irakurtzen jakin behar da: "aintzina- aintzinatic" dioenean, igoal ez da hainbesterainoko. Orduko orainaz ari denean, orde, egiarekin zebilen. "Esaten duena baino gehiago isiltzen du, dakiena ezkutatzen du Iztuetak; frantziar eta bizkaitar dantzak ezagutzen ditu, baina Gipuzkoara mugatzen, entzerratzen da idazlea. Datu falta eta misterioa da nagusi. Meritua dauka bere garaian inork jasotzen ez zuena jaso zuelako, egunerokoa, garai bat isladatzen digulako. Bere garairako baino ondorengoentzako idatzi zuen gehiago". Askok jolasten du idatziekin, disimulu haundiko eta aurpegi ugariko gizona agertzen zaigu.

Dantzari goierritarra, lapurretatik ez baino ahobero bat izateagatik gartzeleratuko zutela uste du ikerlariak, sexu ihardueran bera libre zela eta emaztea ere bai, mezetara jendearen ahoetan ez ibiltzeagatik joaten zela, beste munduak ez zuela esistitzen, e.a.

esateagatik. "Hori orduko euskal giro hartan oso gogorra zen, baina pentsatzen zuena esatera ausartu zen gizona zen eta motibu moral eta doktrinalengatik auziperatuko zuten. Iztuetatarren lapur fama aipatu izan da, baina ez dago daturik Gaintzako Aldasoro eskribauari lapurtu ziola esateko". Kasua da, ohizko legeditik ez, baino Inksiziopekotik epaitu zutela eta Juan Inazio bere aldetik ere salatu zuela bere salataria, Etxabe, Zaldibiako bikarioa.

"Iztueta faltsu samarra da, ze euskaraz baino ez zekiela zioen eta gero prentsa frantsesean hau edo hura irakurri zuela dakar. Tunante galanta: 'ezbehar txiki bategatik ez nuen bertsolari lehiaketan egoterik izan' dioen bitartean, ezbeharra gartzelan egotea zen". Ironia eta pozoina ere bazekien erabiltzen, etsaiei erasotzen. Aintzinako ohitura herrikoi eta ageriko plaketako dantzen kontrakoei, esaterako, "Ipurjolari moldakaitz uanditu, muxinkari txar oiek, doilor zital oiek...", eta gisakoak jarri zizkien.

Fernando VIIri buruz idazten duenean bere alde idatziko du, "sekulako ditiranbo eta laudorioak, baina gero 'egurra' ematen dio. Bat esan eta beste eman". Ez liberal eta ez karlista bezala geratu nahi du Iztuetak. Karlista ez izan arren Zumalakarregi goratu eta foruzale definitzen da. Askok erreparatzen dio etorkizunari. Mendeku eta pertsekuzioen menpe, deseroso bizi behar izan zuen Iztuetak urte batzuetan: salaketak salaketen gainean, ondorio mingarriekin. Hasiera batean irudi eskandalagarria bazuen ere, gero usadiozko bertuteen eredutzat hartu zuten. Izan den zaldibitarrik sonatuena gure garairako hobea zen bererako baino.

 Jon Mikel Arano

TAPIZ ETA GAINEZTADURA
TAILERRA

B i O K, c. B.

Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.

Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

GOIERRIKO ZURAK, S.L

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e.a.

Iribarren, z/g

☎ 88 80 23

LAZKAO

JAUREGI
TOLDOAK s/l

Tfnoak: 880243 - 880133

BEASAIN

Bus ordutegiak

PESA AUTOBUSAK

Ordiziatik Idiazabala:

Astegunak: 7,30/ 8,35/ 9,00/ 9,30/ 11,30/ 12,30/ 13,00/ 13,30/ 14,30/ 15,30/ 16,30/ 17,30/ 18,30/ 19,30/ 20,30.

Asteazkenak: 7,30/ 8,35/ 9,00/ 9,30/ 10/ 10,30/ 11,30/ 11,45/ 12,30/ 13,00/ 13,30/ 14,30/ 15,30/ 16,30/ 17,30/ 18,30/ 19,30/ 20,30.

Larunbatak: 9,00/ 11,30/ 13,30/ 16,30/ 19,30/ 20,30.

Igande-jaiegunak: 17,00/ 18,00/ 19,00/ 21,00/ 22,00.

Idiazabaldik Ordiziara:

Astegunak: 7,00/ 8,00/ 8,30/ 9,00/ 11,00/ 12,00/ 13,00/ 14,00/ 15,00/ 16,00/ 17,00/ 18,00/ 19,00/ 20,00.

Larunbatak: 8,30/ 11,00/ 12,00/ 14,00/ 16,00/ 18,00/ 20,00.

Igande-jaiegunak: 16,30/ 18,30/ 19,30/ 21,30.

SARASOLA AUTOBUSAK

Lazkao-Atauna Malkaskotik:

Astegunak: 9,50/ 11,05/ 15,45/ 18,20/ 18,50/ 20,05/ 21,08.

Asteazkenak: 7,50/ 8,40/ 9,15/ 10,15/ 11,00/ 11,30/ 12,15/ 13,00.

Igande-jaiegunak: 16,20/ 17,20/

18,20/ 18,55/ 20,55/ 21,40/ 22,20.

Beasaindik Lazkao-Atauna:

(A: Ataun; L: Lazkao.)

Astegunak: 7,50 (A)/ 9,15 (L)/ 11,00 (A)/ 12,30 (A)/ 15,40 (L)/ 17,25 (A)/ 18,25 (L)/ 19,00 (A)/ 20,00 (A)/ 21,15 (A)/ 14,35 (L, ikasleentzako).

Igande-jaiegunak: 17,25 (A)/ 18,25 (L)/ 19,00 (L)/ 20,00 (L)/ 21,05 (L)/ 21,35 (A)/ 22,15 (A).

ETXABE AUTOBUSAK

Ordiziako arboledatik Zaldibiarra:

Astegunak: 7,45/ 9,15/ 12,15/ 13,00/ 13,45/ 15,00/ 18,10/ 19,10/ 20,10.

Asteazkenak: 7,45/ 8,50/ 9,15/ 10,00/ 10,30/ 11,00/ 11,30/ 12,15/ 13,00/ 13,45/ 15/ 18,10/ 19,10/ 20,10.

Larunbatak: 9,00/ 12,30/ 18,10/ 20,10.

Jaiegunak: 18,45/ 20,10/ 22,00.

GAIARA AUTOBUSAK

Segura-Zegamara:

Asteazkenetan bakarrik: 7,30/ 9,00/ 10,30/ 12,00/ 19,00.

Zegamatik Beasaina:

Astegunak: 6,45/ 8,15/ 13,00/ 15,00/ 17,00.

Asteazkenak: 6,45/ 8,15/ 9,30/ 13,00/ 15,00/ 17,00.

Larunbatak: 15,00/ 17,00.

Igande-jaiegunak: 17,00/ 18,00.

Beasaindik Zegamara:

Astegunak: 7,30/ 12,00/ 13,30/ 15,30/ 17,30/ 19,00.

Asteazkenak: 10,30/ 12,00.

Larunbatak: 15,30/ 19,00.

Igande-jaiegunak: 17,30/ 22,15.

TOLOSALDERAKOA

Asteazkenetan bakarrik:

Tolosa-Ordizia: 9,15/ 10,15/ 11,15.

Ordizia-Tolosa: 9,45/ 10,45/ 11,45.

PESA AUTOBUSAK

Ordiziatik Bilborantz:

Egunero: 7,50/ 17,10.

Jaiegunetan: 9,20.

Ordiziatik Oñati-Eskoriatzara:

Egunero: 13,15.

Ordiziatik Arrasatera:

Lanegunetan: 19,50.

Jaiegunetan: 21,15.



GOITGI
OKINDEGI
Ogigintzan
onenak!!

Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 160501

- ♦ Egurrezko labeen egindako ogi gozoa
- ♦ Opil finak
- ♦ Eguneroko ogia
- ♦ Ogi bereziak
- ♦ Ogi artisauak

Barandiaran Taldea, 2
ZALDIBIA ☎ 880737

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8
Tel: 88 04 53

BEASAIN


ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)


IÑAKI ARIN ATAUNDARRA DA BEASAINGO BULEGOKO AGENTEA “Generali” aseguru-etxe ezaguna Goierrin

- Non sortutako etxea da Generali?

- Italian sortutako aseguru-etxea da. Gaur egun, mundu osoan zabaldua dago eta Europa mailan lehenengotakoa dela esan dezakegu.

- Zein da Generaliren osaketa?

- Egun, Banco Central Hispanorekin batera, hainbat aseguru etxeen (B. Vitalicio, Vasco-Navarra, Caja Prevision, La Estrella) parte handien jabea da. Bestalde, Generalik, Europ Assistance eta Covadonga enprekin ordezkari-tza osatzen du.



- Bi motatako aseguruak daude:

* Pertsonalak: istripuetakoa, gaisotasunarena, bizitzarena, e.a.

* Ondasunarenak: autoarena, etxekoa, dendakoa, lantokikoa, erantzukizun zibilekoa, e.a.

- Zein dira gehien egiten direnak?

- Beharrezko direnak autoarena, motoarena, kamioiarena eta ehizekoa dira; etxekoa, bizitzakoa eta istripuetakoa nahi dutenek egiten dute.

- Zer eskeintzen duzue etxeko aseguruan?

- Oraintxe, kalitate-kantitatea kon-tuan izanik, poliza hoberenetakoa dugula esan dezakegu. Norberaren etxean edo aldamenekoan gertaturi-

ko istripuak ondo konponduak izaten dira, eguneko 20-27 pezetagatik.

Izan ere, egungo polizetan sutea, haizea, tximista, uraren fuga, lapurreta, erresponsabilitate zibila, e.a. sartuak baitaude.

- Eta pertsonari dagokionean?

- Pertsonak orokorki bizitza osoan arrisku ugari ditugu: istripuak, gaisotasunak, heriotza, e.a. Gaurko egoeran, krisia dela eta, famili askotan langile baten soldadari esker biziko direnez, langile honi zerbait larria gertatzean, arriskuan gerta daiteke famili osoa.

Beraz, istripu eta bizitza aseguruak edukitzea beharrezkoa da, gertakizun larri baten ondoren ere familiak gutxienez bizitzeko maila bat izan dezan.

- Bukatzeko, zein da kezka gehieneko gaia?

- Seguritate Sozialaren oraingo egoera eta aurrerantzerako erakusten duen norabidea ikusirik, egokiak dira eskeintzen ditugun norberarentzako aurrezki plan ezberdinak.

Bestalde, gaur egungo enpresa guztietako langileak autonomo gisa jarri dituzte, Gizarte Asegurantzaren errejimenetik kanpo geratu bait dira. Aldaketa honen ondorioz nahiko babesik gabe geratzen dira. Beraz, kuota aldaketarekin aurreratu-takoarekin, geuk eskeintzen diegun aukeraz balia daitezke.

Seguritate Sozialaren oraingo egoera eta aurrerantzerako erakusten duen norabidea ikusirik, egokiak dira eskeintzen ditugun norberarentzako aurrezki plan ezberdinak

- Bere agentea zarenez, zer eskeintzen duzu?

- Generalik, pertsonak edo eta bere ondasunek daukaten arriskua bere gain hartzen du, diru kuota baten truke.

- Ze motatako aseguruak dituzue?



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfona: 88 87 02

BEASAIN

GABIRIA

Eskola kanpotik eraberritzeko lanak hasi dira

Orain dela 2 hilabete erabaki zuten udal arduradunek eskola, kultur-etxea, liburategia eta beste etxebizitza bat duen eraikuntza kanpo aldetik eraberritzea eta jadanik ekin diote Martin eta bere bi laguntzaileek eginkizun horri.

Lehenik eta behin, 4 paretetako mortero-kapa hori kendu diote zer-nolako harria duen ikusteko. Hau egin ondoren, etxe buelta osoan harria utzi diote metro bete inguruko altueran, Ostatu aurrean izan ezik, hemen goikoarekin maila berean eramateko 3-4 m.-tan utzi baitiote harria. Beste guztia zarpeatu eta gero pintatu egingo dute.

Martinen ustez uztailaren amaiera alderako bukatuko dituzte lan hauek eta aurrekontua 4 milioi ingurukoa da.

Mediku-kontsultan aldaketak

Gabiria eta Ezkio-Itsasoko sendagilea den Lurdes Arriaga andreak jakinarazi digunez, Ezkio-Itsasoko kontsultan zenbait egunetan jende kopuru handia elkartzen da eta, ondorioz, jendeak denbora dextente egon behar izaten du itxaroten. Hau dela eta, zenbait neurri hartzea erabaki du kontsulta-zerbitzuari ahalik eta etekin handiena ateratzearren eta jendeak itxaroten ahalik eta denbora gutxien igaro dezan.

Horregatik, ekainaren 15etik aurrera alde zureko zitaren sistema indarrean jartzea erabaki du. Honen ondorioz, egun horretatik aurrera kontsultara etorri aurretik 724900 telefono zenbakira deitu behar da goizeko 8etatik arratsaldeko 5ak arte eta ordua eskatu.

Gabiriako kontsultan oraingo ez da



Eskolaren oraingo itxura, lau hormak garbitu ondoren.

aldaketarik izango, ez baita jende askorik elkartzen kontsulta horretan.

Emakumezkoen bazkaria

Aurreko urteetan bezalaxe aurten ere badute herrian jaiotako, nahiz eta kanpoan bizi, eta herrian bertan bizi diren emakumeek lagunarteko bazkaria ospatzeko asmoa.

Ospakizun hori aurtengoan ekainaren 2. igandean izango dute, hain zuzen ere, igande honetan. Egitarauari dagokionez, eguerdiko 12etan meza eta ondoren bazkaria 'Ostatu' jabetxean.

Azken erroteria hil zaigu

Orain dela bi aste inguru joan zitzaigun gure artetik hain maite eta ezaguna genuen Igeribar-Errota baserriko Anjel laguna. Bizitzaren zatirik handiena bere errota zaharraren inguruan eman

zuen, egunsentiro erreka bazterreko langa irekiz. Eta langa ireki orduko haize euritsuak harriak jiraka eta dantzan jartzen zituen auzoko baserriarren gari eta artaleak negar-zotinka xehetuz.

Baina alea irinduz doan eran, Anjelen gorputz nagitua ere pixkanaka-pixkanaka xahutzen joan zaigu eta azkenik betirako agur esan behar izan digu eta berarekin eraman ditu errota zaharrak belarrira xuxurlatutako hainbat kontu eder, eta errotarrien jiran izakutuan gordetako hainbat oroitzapen eta pasadizo.

Bihoakie senitarteko guztiei gure doluminik sentikorrena eta errota zaharraren trankak jarrai dezala luzaro Anjelen izaeraren berri lau haizetara zabaltzen.

Gabino Murua

IKAS EZAZU MEKANOGRAFIA



**meca
rapid**

UDA GUZTIAN ZABALIK

Urdaneta, 23-1. ☎ 887278 **ORDIZIA**

**EROSKI
KAFETEGIA**

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 88 27 93

ORDIZIA



pintura eta gaineztadurak

Aita Urdaneta, 6

☎ 16 17 44

ORDIZIA

“Beti Argi”k 15 urte bete

Datorren ekainaren 18an 15 urte beteko ditu “Beti Argi” Musika Elkar-teak. 80ko hamarkadaren hasieran, eta Udal-banda desagertu berri zenean, Txistu taldeko zenbaiti Udalari baztertuta zeuden musika-tresnak eskatzea okurritu zitzaien. Hasiera batean Jose Manuel Bergararen zuzendaritzapean bazeuden ere 82an Ana Le-kuona jarriko zen arduradun nagusia bezala. Oraindik tinko dirau, gainera.

Urte zailak izan ziren arren, gogor ekin zioten orduan taldea osatzen zu-ten 30 kidek. Batzbestek 16 urte bes-terik ez bazituzten ere, laster zabaldu zen beren sona herri guztian zehar. Eta hau lortu ondoren, kanpora begira jarri ziren. 81-82 urteetan Condom frantziar herrira joan ziren, 82an Do-nostiara... zenbait sari eskuratuz, gainera. Txaranga moduan Sanfermi-netan, Gasteizko Andramaritan, Or-diziako Jaietan, e.a. jo ohi dute. Mu-sika banda gisa, Ordiziako Enparan-tzaz gain, Deba, Mutriku, Hondarri-bia, Zumarraga, Zarautz, Beasain, Idiazabal, Ondarroa eta Gasteizen.

Gaur egun, Beti Argiko partaide gehienak musika ikasketak burutzen ari dira. Gainera, urteen joan-etorriek jende aldaketa suposatu dute. Egun ere 30 kide daude berriro eta beren adina 22 urtekoa da, batzbestekoa eginda.

Kuadrila egunerako bazkaria

Santanak hurbiltzen ari dira eta urtetik urtera geroz eta kuadrila gehiago ate-ratzen direnez herriko festetan (esan digutenez Gasteizko festetan baino gehiago, 1.000 blusadunetik gora), Udalak Beti Alai pilotalekua eskeini die leku faltan dabiltzen lagun taldeei.



Beti Argi banda. Ikus ekainak 18ko programa agendan

Arg.: J. Marin

Interesatuok apunta zaitezke uztailak 1a baino lehen Frontoiko Boga-Boga tabernan.

Kadeteak ia-ia

Ordiziako kadeteak Gipuzkoako Kopa eskuratzeko atarian geratu ziren joan-dako maiatzaren 27an. Futbolari gaz-tetxoek, denboraldia ezin izan zuten beraiek nahi bezala amaitu, baina dena den, sasoi oparoa izan da beraientzat. Ligako txapeldun geratu ondoren Gi-puzkoako Kopa jokatzeari ekin zioten eta bertan finalera heltzea lortu zuten. Miguel Alonso eta Juan Luis Huerta-sek zuzendutako mutilek Oiartzun tal-dea izan zuten aurrez-aurre finalean. Lasarten jokatu zen norgehiagoka ga-rrantzitsu hau eta bertan urdiñak, pe-naltietan zorte txarra izan ondoren, es-kuhutsik bueltatu ziren. Datorren ur-tean izango da eta animo mutilak!

ASADekoak berriro mintzagai

Etxeetako laguntza sistema aldatzeko erabakia onartu berri du plenuak. Zi-negotziek beraien aldetik ateratako kalkuluen arabera merkeagoa litzate-ke udalak zuzenean kontratatuko ba-litu langileak. Hain zuzen, 1.750 pe-zeta ordainduko litzuzke orduko Uda-lak, orain arte 2.100 kostatzen zaion bitartean. Era honetan, zerbitzu hau eskatzen duten ordiziarrei laguntza pertsonalizatuak eskeiniko litzaz-kieke, berauok izango liratekeelarik gustokoen duten enpresaren zerbi-tzuak kontratatuko litzuzketenak. Sis-tema hau uztailaren 1ean jarriko da martxan edo egun berean ASAD en-presako 9 langile lanik gabe geratuko dira.

 Aitor Calvillo Zurutuza

ORDIZIAKO BARRENA EUSKALTEGIA UDA IKASTAROA

Ekainaren 26tik uztailaren 21era

Goizez 5 ordu, maila guztiak, alfabetatzea eta EGA

Matrikula zabalik ekainaren 12tik 21era Tfnoa.: 881280

Bulego orduak 10etaik 12etara, 16,30etaik 19,30etara.

ORDIZIA

AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76

Giro hobezeinean igaro dira festak

GABIRIA

Asteazken gauetik hasita emango diegu errepasoa aurtengo Azentzio jaiei. Ez ziren ez festak modu makalean hasi *Bilkoin Elkartean* egin ohi den herri afariarekin, festetan murgiltzeko era paregabea benetan. *Gizon Pikua* ere ez zen haserre geratu gauerdialdean gazteek eskeinitako bertsoekin.

Ostegunean zaharrenei heldu zitzaizen txanda eta ez zuten beraien ahalleginean hutsik egin, oraindik sasoi ederrean daudela argi eta garbi utziz. Gauean Irrintzi Lehiaketan Isa eta Ramonen falta somatu bazen ere, saio polita burutu zen, nahiz eta bakarren baten irrintziak astoaren arrantza gehiago eman.

Zikiroa izan zen **ostiraleko** protagonista nagusia inongo dudarik gabe. Zugarramurditik etorritako lagunak prestatutako bazkari goxoarekin eta Nekaezinak txarangaren laguntzaz giro paregabea sortu zen.

Larunbatean goiz jeiki ginen denok paella lehiaketan parte hartzeko asmoz. Arratsalde partean argi geratu zen

beste urte batez *Play-back Lehiaketa* dela festetako ekintzarik arrakastatsuen. Txalogarria da benetan herri-tarrek, ekintza hau aurrera atera ahal izateko, entsaiatzen pasatzen dituzten orduak. Herriko txikienek ere ez zuten aurten partehartzeko aukera galdu nahi izan eta saio bitxiak burutu zituzten. Aurten inoiz baino partaidetza handiagoa izan du eta nahiago genuke, festen onerako, urteen poderioz parte hartzea handiagotzen joango balitz. Afalondoren hasita goizalderarte, mozturro gaua zela eta inon diren pertsonai xelebrenez bete zitzaigun herria.

Igandean Elkarteen arteko pilota partiduak eta Haur danborrada izan genituen. Gauean Gizon Pikuari azken agurra eskeini zitzaion modu triste batez. Beti ere, hurrengo urtean bueltatuko den esperantzan. Festa gosez gelditu denak ez dezala etsi, Korputsak ere gainean ditugu eta parrandarako aukera ederra izango dugu laister herri-rik mugitu gabe. Ikus programa agendan.

Jesus Puente herrian

Erdibituriko bihotzak sendatzen dituen Jesus Puente izan dugu bisitan. Han etorri zitzaigun, "*Parece un pueblo tranquilo*" esanez herri guztia aztoratuz. Nork esan behar zigun herritarren maitasun komeriak "Lo que necesitas es amor" telebista programan agertu behar zirenik. Hauxe bakarrik falta zitzaigun!

Legorretarrak finalean

Lastima, baina neskek ezin izan dute irabazi hilaren 3an Lasarten jokaturiko Federazio Koparen finala Hernaniko Egokiren aurrean 6-1 galdu ondoren. Estreineko urtea izateko ez da gutxi 2. postua eskuratzeko, denboraldi bikaina burutu dute eta ziur gaude aurtengo esperientzia baliogarria izango zaiela hurrengo denboraldiari begira. Ea laister tituluren bat ekartzen duten herrira. Animo eta zorionak!

 **Josune Amondarain**

IDIAZABAL

Ohitura zaharrak berpiztuz

VI. hilabete honek, ikasturtearen amaiera ekartzeaz gain, udako oporrei hasiera ere eman ohi die. Ekainak, eguzkiari, euli, suge eta ziraunei diosala egiten die. Era berean, landare ezberdinei; izan belar arrunt, izan barazki preziatu. Hargatik, ekainak badu guretzat euskaldunontzat nolabaiteko esanahi berezi bat: ekainekoa dugu urteko egunik motzena eta gaurik luzeena esaterako. Segurak gogoan izango dutena honez gero.

Gaur halere, ez natzaizue euskaldunen ohitura berezi horietaz jardungo, izango baitugu aurrerantzean aukerarik gai hori eta beste hamaika jorratzeko. Beste ohitura oso ezberdin bati egin behar diot leku, eta hasieran aipaturiko horrekin inolako zerikusirik ez duena gainera. Oraingoan kristua ohitura bat dut mintzagai.

20-GOIERRITARRA



Ekainaren 11n ospatuko den San Adriango irteeraz ari natzaizue. Aipaturiko egunean eta goizeko 7.00etan Mujika jatetxetik irtengo dira horretarako izena eman duten guztiak. Bertan ospakizuna betiko "erritualez" osatuko da meza, bono partiketa... eta behekoan, Zegama eta Segurako kaleak zeharkatuko dituzte idiazabaldarrek

bertakoekin batera. Guzti hau da-kizuenek ohitura zahar baten erro-rik datorrena da eta oraindik jende multzo polita inguratzen duena gainera.

Hasieran aipatu dudanak beraz, esan bezala ez du honekin inolaz ere bat egiten. Izan ere, hark kristautasunaren sorrerako kontuak isladatzen baititu eta honek kontu zaharra bada ere, ordugero-ko behar du izan.

Era honetara gogoratuko ditugu gure arbasoen ohiturak. Gazteek 23an izango dugu gure txanda eta helduxea-goek orain izango dute aukera. Halere kontutan izan behar da bietako edozeinetara ere edonor etor daitekeela izan emakume, haur, jubilatua edo gaztetxo.

 **Aloña Galarraga**

Jon Jauregi hurrengo alkate

Azken Udal hauteskundeetan EAJren garaipenaren ondorioz, alkatetza Jon Jauregi hartuko du hurrengo lau urteetarako. Jonek bere ikasketak Beasaingo Ikastolan hasi zituen eta Donostian Zuzenbide ikasketak burutu ondoren, Deustun postgraduatu atera zuen. Gazte gaztetatik izan du politikarekiko ardura eta zinegotzi izatetik alkate izatera pasako da.

G.- Zein izan da zure ibilbide politikoa?

E.- Ez naiz gogoratzen noiz hasi nintzen politikaz arduratzen, txikitatik, beti izan dut Euskal Herriarekiko, euskararekiko eta politikarekiko kezka. PNVn 16 urterekin afiliatu nintzen; alderdiko juntakide izan nintzen; gero EGIko kontseilu nazionalen eta erre-gionalen egon nintzen; aurreko legegaldian nere kasa eta gustoz, alderdiaren adostasunez hirigintza, zerbitzu eta haziendako batzordeetara etortzen nintzen, eta azken legealdi honetan zinegotzia izan naiz.

G.- Zein da orain jarraitu beharreko lehen pausoa?

E.- Orain Udala osatzeari ekin behar diogu. Aste honetan hasi gara alderdi ezberdinekin hitz egiten, beraien asmoak zeintzu diren eta Udala nola osatu behar dugun erabaki behar da. Jaur-laritzan dagoen tripartittoa udaletan lekutzea erabaki zen hauteskunde aurretik eta Udal honetan bete egingo da. Ekainaren 17an Udal Konstituzioko plenoan alkatea izendatuko da eta gero, hilabete bat dugu komisio bakoitzeko lehendakaria, delegazio eta ordezkari-tzak izendatzeko.

G.- Zeintzu dira legealdi honetarako dituzuen lehentasunak?

E.- Legealdi honetan linea batzu mar-katzen hasi gara administrazio arloan, sare informatikoa sartzan hasi dira eta herriarrei zuzenduriko bulego bat, horrekin lanerako filosofi berri bat sortu nahi da, legealdi honetan linea hori sartzan jarraituko dugu. Bestalde, hirigintzari dagokionez, lehentasuna gestioek izango dute, hauen ondorioz ekintza zehatzak egin ahal izango bai-tira. Proiektu garrantzitsuenen artean aurkitzen dira Pergolen zabaltzea; Ez-



kiaga auzoko etxebizitzak babestu, horretarako Eusko Jaurlaritzarekin akordio batetara iritsi beharra daukagu; lehentasuna du baita ere Oriamendi ka-lea irekitzeak, baina hori bezain ga-

rrantzitsua da prolongazioa ere zabal-tzea, baina honek luze joko du. Udala osatu bezain laster Zunzunegirekin akordio bat egin behar dugu, ondoren plan partziala onartu behar da eta beste zenbait pauso jarraitu behar dira. Ber-nedoko ingurua arintzea ere gure lehentasunetako bat da, bertan mugimendu ekonomiko handia egon liteke.

G.- Kultur eta gizarte mailari dago-kionez, zer diozu?

E.- Lau urte hauetan Udal euskaldun bat lortu nahi dugu eta bestalde herria txukun eta garbi mantendu. Kultur mu-gimenduei dagokionez, herri partizi-patiboago bat lortzea da gure helburua eta horretarako kontseilu kulturala, gi-zarte kulturala, elkarte ezberdinak eta abarrek garrantzia handia dute. Azke-neko urteetan mugimendu kulturala gehitu egin da baina parte hartzea gehiago areagotu behar da.

Izaskun Salazar



Ikastolako neskak saskibaloian

Alkartasuna Lizeoko saskibaloiko neskak, infantiletan, Gipuzkoako Es-kolarteko txapelketarako sailkatu dira, Goierriko txapelkunak izan ondoren. Final aurrekoetaraino iritisi dira bea-saindarrak, baina galdu egin zuten final aurrekoa, arbitroaren lan kaxkarra zela

eta. 11 taldekideek eta Jose Ramon Anunzibai entrenatzaileak 5 urte da-ramatzate saskibaloian jokatzen, eta aurreko urteetan ere finalera ere iritsi izan dira eskolarteko txapelketetan. Maila ona dute neskek, baina entrena-tzaileak kezka bat azaldu du: BKLe ez duela ezertxo ere egiten, nesken saski-baloi talde bat sortzeko.

Pilota txapelketa

Gailurrerantz Kirol Elkarteen barruan herriko Pilota Eskolak antolaturik, zenbait hilaitez martxan egon den pilota txapelketa joan den larunbatean amaitu zen. Hirugarren edizio honek, aurrekoek bezalaxe, arrakasta handia izan du, leku askotako pilotariek parte hartu dutelarik. Hona hemen txapeldunek osatzen duten ohorezko zerrenda: benjaminetan, Zaldibiko Zumalde eta Mendizabal atera ziren txapeldun, Berrobiko Elurbe eta Altunari 18 eta 13 irabazi ondoren; alebinetan, berriz, Billabonako Ropon eta Bengoetxea, Agirrezabal eta Oiarbide segurarrei 18 eta 17 irabazi zitelarik; umeetan, Berasategi eta Imaz idiazabalarrak izan ziren txapeldun, Ataungo Gonzalez eta Dorronsoro 18 eta 14 garaitu ondoren; azkenik, kadeetan, Altuna eta Esnaola berrobitarra egin ziren txapelaren jabe, Billabonako Goikoetxea eta Gibelalderen kontra 18 eta 8 nagusitu zirelarik.

Sari-banaketako protokoloa ere be-



Zumalde eta Mendizabal, benjaminetako txapeldunak, Mikel Unanue pilotariarekin

netan dotorea izan zen. Añorgako Mikel Unanue pilotari handiaren eskutik jaso zituen sariak, nola txapeldun hala bigarrenak.

“ZUTek lanean segituko du”

ZALDIBIA Udal Taldeak (ZUTek) ondorengo ohar hau bidali digu: “Udal-leko arduradun izan garen lau urteotan saiatu gara ahalik eta gestiorik onena egiten. Hori dela eta, bistan geratuko

dira, ikusi nahi dituenarentzat, makina bat gauza: herriko plaza, Iztuetaren eskultura, etxebizitza sozialak, lokal berriak Luberrinean eta Ostatuburu ondoko etxeetan, Karreranea erosi, Olaldeko parkea, Zubiaurretik Mirandako estrada... Kultura eta beste zenbait arlotan egin diren lanak ahaztu gabe, noski. Dударik ez gehiago egitea gustatuko zitzaigukeela, eta oraindik asko gertatzen dela egiteko”.

“Baina demokraziak bertute handiak ditu, nahiz eta sarritan eskergaiztoko agertzen gaitzaizkion. Orain testigua beste batzuei pasatzea tokatu zaigu. HBk irabazi ditu hauteskunde hauek, 579 botorekin, baina geuk ere hutsa adinako boto-saila eskuratu dugu: 382, nahiz eta, egia esan, emaitza hobea espero genuen. Nolanahi ere, lanean jarraituko dugu, ahalik eta oposizioerik eraginkor eta konstruktiboena eginez. Azkenik, mila esker botoa eman diguzuen guztioi”.

 **Rufino Iraola**

ITSASONDO

Herriko Liburutegiaren azken berrikuntzak

Herriko Kultur Taldearen aldizkaria den “Kantillape” hilabetekariak bere 51. zenbakiaren 4 orriak Liburutegiari eskeini dizkio. 1965an saio batzuk egin baziren ere, Udal Liburutegia 1973an **zabaldu zen eta bailarako lehenengoe**-takoa izango zela esan daiteke. Hasieran 1.200 liburu bidali zituen Kultur Ministeritzak, baita mahai eta bestelako tresnak. Kutxek emandakoekin 2.000 liburu izatera iritsi zen. Udalak laguntzen zuen eta herritarrez osatutako Liburutegi Batzorde baten esku egon zen 70ko hamarkadan. 79an egin-dako txosten batek dioenez, 6 urtetan 145 bazkideetatik 302 izatera pasa zen. Bazkideen ordainketa kuota 10 pezetakoa zen eta 9.500 mailegu izan ziren. Askok dira liburuzain gisa lanean aritu

direnak: Joxe Mari Iturrioz, Joakin Iturrioz, Jesus Mari Iturrioz, Joxe Martin Aizpuru, Gerardo, Maria Teresa eta Joxe Mari Mendizabal...

86an, Lurdes Amundarain arduradun zela, espazio falta somatuta, liburutegia itxi eta obra batzuk burutu ziren. Gaur egun liburutegiaren azken berrikuntzak burutzen ari dira. Udaltxeko behekaldeko areto bera aprobe-txatuz, liburu ondarea urtez urte sendotzen joateko aukera lortu nahian, 94ko martxotik hona apal mugikorren sistema egokitzeko obra burutu da, liburuak gordetzeko ahalmena ia-ia bikoiztu dela. Liburuen sailkapena, berriz, zeharo aldatu da. Abantaila teknologikoak sartu dira zerbitzuaren hobekuntza lortzeko. Horretarako Udalak Har-

dware ekipamendua eta Software programa ezarri ditu.

Horri esker Mari Jose Gorostizu (arduradunak) eta Gerardo Uribebeberriak katalogazio lana zuzenean ordenagailuan egin dute. Itsasondoko etxeetan Kantillaperekin batera banatutako Liburutegiko gidan ikus daitekeen bezala, ondare osoa 8.000 ale ingurukoa izango da. Antolaketa lanak aurreraturik daude, dagoeneko 5.000 ale sailkatu eta katalogatuak izan baitira. Liburutegia oraindik itxita egon arren, liburu askoren mailegua prest dago goizeko 8etatik 12,00etara liburutegira inguratu nahi duen edonorentzako.

 **J.M.A.**

Zein alkate?

Larunbatean, hilak 17, ja-kingo dugu. Orduan egingo da Alkate berria izendatze-ko Plenoa. Karmele Aierbe eta Aitor Auzmendien artean dago kontua. HBk lortu zituen boto gehien, 492; ondoren Herrigintzak, 452, eta EAK azkenik 166. Zinegotziak, berriz, HBk eta Herrigintzak 4na eta EAK 1. Giltza EAK du.


Bestalde, Batzar Nagusietarako, HBk 503 boto lortu zituen, EAJk 289 eta EAK 259.

Kolpe latza

Kotxe istripu malapartatu batek eraman zuen gure arte-rik maiatzaren 27an Mari Jose Arrondo. 33 urte zituen. Samin haundia herri-tarren artean. Eliza gainez-ka zela eman zitzaion azken agurra. Senarra eta hilabe-tetako mutikoa utzi ditu. Atsekabea lagun Jexux-mari senarra, ahizpak eta Andres eta Pilar gurasoak.

Sabinari ere agur

Maiatzaren 31an hil zen Sabina Zuru-tuza "Alcaldesa". Herriko Alkate iza-na, 1971tik 79ra. Bere garaian, Gipuz-koako 1. alkate emakumezkoa izan zen eta Estatu guztian lehenbizikoetako. Garai hartako "La Voz" eta "DV" egunkarietan lehen orrian agertu zen bere argazkia. Maistra izana, jendetza haundia elkartu zen hileta-elizkizune-ra. Sentimenduan lagun senideei.



Udal berria, botoen arabera, goitik behera, ezkerretik eskubitara: 1. Karmele Aierbe (HB); 2. Aitor Auzmendi (Herrigintza); 3. Joxemari Urdangarin (HB); 4. Pello Agirre (Herrigintza); 5. Jone Erauskin (EA); 6. Pako Zeberio (HB); 7. Iñaki Eskisabel (Herrigintza); 8. Oihana Munduate (HB); 9. Jose Benito Apalategi (Herrigintza).

Sangregorioko frontoia

Ia ez zaio asko falta. Ondo bidez, hil honetan bertan amaituko dute. Dotore geratuko da. Diputaziotik 50 milioiko laguntza lortu da asko kostata. Orain arte 61 milioi zertifikatu dira frontoiko lanetan. San Martingo Auzoeta Kirol-degia, berriz, leiho-kristaleraz itxiko dute laster. Udalak onartu duenez, Eguzki etxeak egingo ditu lanak 1.400.000 pezetako presupostuarekin.

Urekin komerik

Bat dala, bestea dala, eateko uripe eon gea errin. Zikiñen bat sartu zitzaion nunbait ta bazpare ez eateko abixue jarri zon Alkateak. Guk da-kiula beintzat ezta iñor on-doezik errin ure eanda. Oaiñ, ustu zan depositue ondo garbittu due eta eztau kuidaui.

Errik eabaki donez, bes-talde, emendi aurea Ur-Kontsortzion esku geatzen da erriko ur asuntoa. 8 de-positun kargu eiñgoa Kon-tsortzioa eta be gaiñ kontu artzea. 2 urteako men da tratue. Ordañetan, errik 13 pezta ordainduko ditu me-tro kubikoa. Oaiñarte 11,50 paatzen zon.

Beste kontu batzuk

● **Murkondo Elkarteari** gelak utzi dizkio Herriak San Gregorioko Eskolan. 100.000 pezeta eman zaiz-kio txukunketarako.

● **Arau Subsidiarioak.**

Aldaketak onartu dira. Besteak beste, Larruntzan etxeak egi-teko aukera izango da, eta San Martin-go Bikario-etxe azpia edo komertzio-tarako izendatu dute.

● **Bernoara irteera** Kirol Elkartek antolatuta hilaren 18an, igandea. Atxurreneko zubitik gora izango da, Iturmendi-Ataun-Urdiain mugan ibil-tzeko.

Jon Aizpurua

LAZKAO GARAJEA
Senpere Industrialdea
882442-888901
Faxa: 888901
LAZKAO
AGENTZIA

IBAI - ONDO
 ZURGINTZA HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK
Tailer eta erakusketa:
Antzizar Auzoa, z/g.
Tfona: 880543 BEASAIN

PAGOSA
OKINDEGIA
Tfona: 885500 ORDIZIA

Zegamarrak Arantzazura erromes

"Noiztik goaz zegamarrok Arantzazura erromes?" Horixe da Jose Luis Zurutuza frantziskotar fraile zegamarrari Zegamako Udal Kultur Batzordeko Edurne Albizuk egin zion galdera eta hona hemen Santutegiko artxiboetan aurkitutako datuak.

Ama Birjina Arantzazun agertu (1469an) eta berehala, badakigu ziur erromes asko zetorrela bertara: Oñati, Mondragoe, Leintz bailarakoak... eta seguru asko Zegamarrak. Lehen garai haietako dokumenturik ez dago, Arantzazun behintzat. 1553an bertako komentua (ez eliza) erre zenean, han galdu ziren betiko orduko agiriak. 1622ko sutea oraindik gogorragoa izan zen: eliza eta komentu, guztia kiskalduta gelditu zen eta han zeuden paperak ere bai. 1834ko erreketak ere latza izan zen; eta berriz ere hantxe erraustu zen dokumentu saila. Ezer gutxi salbatu ahal izan zen.

Zegamako erromesen 1. aipamena, aita Lizarralde dionez, seguruenik 1553 erreketak-urtekoa izango da. Orduan bihurtu zuten Arantzazuko Andre Mariaren irudia bere 2. koka-lekutik lehengo jarlekura. Zegamar erromesak, beste askorekin batera, hantxe ziren Arantzazun Pentekoste bigarrenetan. **Dokumenturik argiena** 1590ean, Rojas Sandoval Iruñeko gotzaiak debekatu egin zituen konstituzio sinodaletan erromeria luze xamarrak, haietan gehiegikeriak egiten omen zirelako. 1620an Fray Mateo Burgos Iruñeko frantziskotar gotzaiak **baimen berezia eman zien zegamarrei, eta haiei bakarrik, Arantzazura erromes joan ahal zitezen.**

Agiri horretan honela dio berak: zegamarrak **betidanik** (de siempre aca) joan izan dira Arantzazuko Amaren Monastegira, herritik legoa eta erdira; joan eta etorri, beti jan eta edan gabe egin izan dute... Konstituzio sinodalak ezker, ez dutela --dio-- Prozesio hori egiterik izan, eta jasandako ekaitz eta harriengatik ez dutela probetxuzko fruturik bildu... Ama santu hark ur-kontuan eta beste gaineratikoetan beti lagun izan omen die ("por la intercesion de aquella Santa han sido siempre socorridos asi de aguas como de lo demas"); Zegamarrek gainerantzikoak baino jaiera biziagoa diotela Arantzazuko Amari...

1787an berriz ere erromerien debekua etorri zen Iruñeko gotzaiarengandik.



J.L. Zurutuza organoa jotzen. Bere arduraean dago Arantzazuko kalendarioa. Arg.: HABE

Handik aurrera, Zegamako alkateak urtero eskatzen zuen baimena erromes-ibilia egiteko eta beti baiezkua iristen zen. 1794ko eskabidean honela dio berak: zegamarrak jaiera berezia dutela Arantzazuko Amari, aintzinatik ("de tiempo inmemorial") joan ohi direla Prozesioan Espiritu Santuaren pazkoan, agintariak buru direla ("con asistencia de la Justicia y demas Sres. del Gobierno secular" eta era horretara jan edanetan beti neurriak gordetzen dituztela...

1622ko sute ikaragarriaren ondoren, Arantzazuko eliza eta komentua berriro eraikitzen lagundu zuten hainbat ongilek eta herri askotakoak, eta hauen artean Zegamakoak. Eliza berriko koruko sileria (87 jarleku 2 ilaratan) Juan Garzia Berastegi zegamarrak egin zuen, diotenez, Zegamako herritarrek emandako intxaur-materiala erabiliz. Arantzazun gordetzen den 1750eko komentu ekonomikoaren idazki batek dakarrenez, Zegamako "Prozesioak"- peregrinazioak aintzinatiko pribilegio oso berezia zuen ("la antigua y extraordinaria regalia") bere bazkaria komentuko errefetorio edo jantokian egiteko, Arantzazuko Amaren Oñatiko kofradiak egiten zuen erara hain zuzen. (Pribilegio hau zergatik? Zegamako zaharrek esaten omen zuten aspalditxo batean zegamarrek intxaur-material hura eman zutelako zela). Bazkari horretan erromes danak hartzen zuten parte, apaizak eta agintariak (hobetoxeago jenez) eta herriak, guztiak zutik jaten zutelarik. Ordurako, ohitura hori beheraka xamar omen zihoan.

1834an liberalek egindako erreketak negargarrian Amaren irudia Oñatira jeitsi zuten eta hantxe egon zen 12 urtetan. Bitarte horretan, Zegamako herria lehen bezalaxe urtero etorri zen erromes Aran-

tzazura eta bere meza eta elizkizuna Sindikako mandioan izaten zituen. 1878an frantziskotar komunitate berria sortu zen Arantzazun. 1881ean, garai ilun hartan kristau fedeari sendo eusteko, erromesaldi ugari antolatu zen euskal Elizbarruti guztietatik Arantzazura. Hantxe azaldu ziren orduan ere 1.000 zegamar, Amari estandarte eder bat erregalatuz: Sortzez Garbia eta San Martin bere kapa partitzen ikusten ziren bertan.

Laburbilduz, **zegamarren erromes-txanda guztiz aintzinakoa da Arantzazun, eta oso harrera berezia egin zaio beti.** Bere agintariak buru dituela etorri izan da, baita garairik txarretan ere, Amabirjinari bere maitasuna agertzera eta behar denean gogotsu laguntzera. Basilikara **prozesioan** jeitsi izan da, Goikobentatik behera galtzada zaharretan azken zatia ibiliz, aintzinan beste herriak egin ohi zuten bezala.

Eranskina: Oñatiko kofradia Amabirjina agertu eta berehalaxe sortu zen. Oñatiko kondearen zergalari ez ziren oñatiarrek bakarrik zeukaten eskubidea hor sartzeko, eta beste gabe noble bihurtzen ziren. Gebaratar kondeak beti aurrean eduki zuen talde erlijioso (eta nolabait politikoa) hau. Leintz bailarako herriek ere kondearen eraginpean bizi izan ziren. Eta kontutan hartzekoa dena: Herri horiek jaiera berezia izan diote betidanik Arantzazuko Amari. Askatasun bidean ere laguntzen zielako ote?

Eta kasualitatea, Zegaman ere, garai haietan bazen jauntxo bat, **Ladron de Cegama**, Oñatiko Gebaratarren lehen-gusua, agintzea eta dominatzea gustatzen zitzaiona. Parroki elizaren patronatoa bere esku eduki nahi eta istiluak sortu ziren jauntxoaren eta eliz-gizonen artean. Hala, 1538an Ladron de Cegamak Don Juan Larranburu parrokoiko erretore jauna hil egin zuen. Nolabaiteko pakeak eginda gero ere, burruka giroak jarraitu egiten zuen, 1539an Hondarribiako Juntetan adierazten denez ("Agora de nuevo andan ambas partes convocando gentes y armas, de manera que podrian suceder escandalos y muertes").

Guzti honek ere bultzatu ote zuen lehen urte haietan Zegamako herria, agintariak buru zituela, Arantzazuko Amarengana pake eske etor zedin? Hobeto aztertu beharko litzatekeen gaia da haxe.

12 haurrek egingo dute lehenengo jaunartzea

Urtero bezala aurten ere iritsi zaigu gure herriko haurrek horrenbeste itxaroten duten eguna, hain zuzen Lehenengo Jaunartzea egingo duten eguna. Ohi-turari jarraituz Korpus aurreko igandean egingo dute, beraz datorren igandean, hau da, ekainaren 11n. Pozez gainezko aurkitzen diren 12 haurrek hartuko dute lehenengo aldiz Jauna.

Aurten gure herriko eliza zaharberritzen ari direla eta, Lehenengo Jaunartzeak Lierniko Amaren ermittan egitea erabaki dira, beraz Ormaiztegi-ko historian horrelakorik inoiz gertatu denik entzun ez dudanez haur hauen eguna gure herriko historiaren zati bezala gogoratuko dugu.

Lierniko Amaren ermittara Lehenengo Jaunartzea hartzera hurbilduko zaizkigun 12 haurrak honako hauek dira: Iñigo Argiñano, Gorka Aldalur, Iñigo Hernandez, Xabier Garmendia, Ibai Gerenabarrena, Elixabete Ormazabal, Eli Jaka, Lierni Ormazabal, Aiora Ezkurdia, Ainara Arzelus, Estibalitz Bravo eta Miren Betegi.

Igandean haur hauek burutuko duten ekintza Kristau heziketaren parte ga-



rrantzitsu izan da. Heziketa lan hori ixiltasunetik eta apaltasunetik burutu izan duten Lierni Lapizondo eta Mari Karmen Berasategi katekistek, baita guraso eta gainerako hezitzaile guztiek jaso ezazue guztion aldetik zorionik beroena.

Lehenengo Jaunartzea hartuko duzuen haurrek jakin ezazue hartu duzuen bidea jarraituz, egunen batetan guztiok itxaroten dugun bezalako gizon-ema-kume leialak izatera iritsiko zaretela.

Haurtxoek jaso ezazue besarkadarik handiena eta zorionik beroena.

EAren eskertza

Maiatzaren 28an ospatu ziren hauteskundeetan Ormaiztegi-ko EAK izan duen igoera nabarmena eskertu nahi du, herrian aurkeztu ziren 3 alderdie-tatik igoera jasan duen bakarra izan delarik. Herriar talde handiago batek botoaren bitartez alderdi honengan jarri izan du bere konfidantza, ondorioz herrian 3. alderdi izatetik 2. alderdi izatera pasa da, gainera 1. alderditik 11 botorak besterik gelditu ez delarik. Beraz alderdi hau udalean 2 ordezkari izatetik 3 ordezkari izatera pasako da.

EAK, baietza eman dien ormaiztegiar guztiei eskerrik beroenak eman nahi dizkie eta aldi berean azken lau urte hauetan egin duen bezala apaltasunetik eta erantzukizunez herriaren alde lanean jarraituko duela adierazi nahi du.

 Aitziber Murua

SEGURA

Euskadiko Dantza Txapelketa festetako lehen asteburuan

Herriko festa batzordeak hala erabakita ekainaren 17an eta 18an eta hurrengo asteko 23, 24ean eta 25ean izango dira aurtengo jaiak. Lehenengo astebururako gauzatu den egitaraua hau da:

Ekainak 17, larunbata: umeen eguna

9.30etan: arrantza txapelketa.
10.00etan: kalejira herriko "Kriseilu" txistulari taldearekin. **10.30etan:** umeentzako marrazki txapelketa eta ondoren Mutiloara joan etorria bizikletaz, eta sokatira. **11.00etan:** gazteen bola eta toka txapelketa. **12.00etan:** herriko trikitilari gazteak Plazan. **16.30etan:** Plater tiraketa "Karobie-tan" (herrian jaiotako eta bertan bizi

direntzat). **17.00etan:** "Altxorraren bila" eta txokolate jana umeentzat. **19.30etan:** buruhaundi eta erraldoiak, herriko txistulariez lagunduta. Ondoren herriko trikitilari gazteak Plazan. **23.00etan:** goizalderarte Drindots taldearekin dantzaldia.

Ekainak 18, igandea:

9.00etan: herriko "Kriseilu" txistulari taldearen diana. **9.40etan:** gazte mailako txirrindulari proba. **10.00etan:** Meza Nagusia eta Korpus prozesioa. **12.00etan:** Euskadiko XIX. Dantza txapelketaren kanporaketa Baratze pelotalekuan. **18.00etan:** Euskadiko XIX. Dantza txapelketaren azken saioa. **20.00etan:** buruhaundi eta erraldoiak herriko txistulariez lagun-

duta. **20.30etan:** ttuntuna eta trikitixa herriko Plazan. Aldi berean "ardo partitza". Ondoren, herri afaria Pedro Etxezarreta eta Joxe Intxausti bertsolariak eta trikitilariak alaiturik.

Rafa Berasategi Hidden Peak-era

Ekainean irtengo da Rafa, uztailaren amaiera aldera Pakistango Karakorum mendikatean dagoen 8.068 metroko Hidden Peak (Gasherburm I) igotzen saiatzeko. Rafak aurrez Bolivia, Ecuador eta Peruko mendirik altuenak eginak ditu, eta 1993an Cho Oyu ere bai. Informazio gehiago kiroletako orrialdean.

 Joseba Telleria

RAFA BERASATEGI SEGURARRA ETA KOKE LASA ORMAIZTEGIARRA, G I-**Hidden Peak (8.068 m.)**, mendi ezkutuarien bila

Historian zehar mendiak euskaldun askoren bizitzan leku garrantzitsua bete izan du. Bertako mendi, baso eta haranetara egokitu eta gure mendiez goatzera ohitu gara. Hurrengo pauso bat emanaz, euskal mendizaletasuna mugaz handiko gailurretarrantz zuzendu da, paisaia berriak ezagutu eta inguru haietako jendearekin bizi izanez.

Hala ere, nahiz eta euskaldunek mendiarekiko izan duten eta duten ohitura eta zaletasuna halakoa izan, euskaldun batek lehen zortzi milakoa (Daulaghiri) igo zúenetik 16 urte besterik ez da igaro, eta 15 Zabaleta Everestera iritsi zenetik.

Rafa Berasategi segurarra, Koke Lasa ormaiztegiarra eta Txetxu Lete urnietarra aurkitzen dira une honetan helburu berri bat erdietsi nahiean. Aurtan bi urte Cho-Oyu (8.201 m.) eta iaz Kun (7.087 m.) gailurrak lortu izanak bultzatu ditu berriro ere Himalaia aldera abiatzera. Oraingo honetan Karakorum-en (Pakistaneko Balti lurraldean) kokatutako Gasherbrum I edo Hidden Peak izenez ezagutzen den 8.068 metrotakoa izango dute helburu.

G.- Oraingoan G-I da zuen aukera. Zein arrazoi dela eta?

E.- Egia esan, ez da geuk aukeratua izan, hasiera batean behintzat. Guk G-I ez baino G-II egiteko asmoa genuen, baina baimena tramitatzen hasi ginean Pakistanen mendi bakoitzeko espedizio kopurua murriztu zuten, mendiko sei espedizio, eta G-IIra joateko aukerarik gabe geratu ginen eta, orduan, Nanga Parbat eta G-I eskaini zizkiguten eta guk G-I-en aldeko apostua egin genuen, izan ere G-IItik gertu dagoenez, bertara hurbiltzeko ibilbidea eta gainerakoak aztertuak genituen... Hala ere teknikoki G-II baino bastante zailagoa da.

G.- Mendi zaila al da?

E.- Zer edo zer izan behar du, kontuan izanda ez dela euskaldunik izan bere




gailurrean, nahiz eta euskal espedizioak 87, 92 eta 93an saiatu izan diren. Estatu mailan berriz, madrildarrak 81ean ahalegindu baziren ere ez zuten gailurrik lortu, ezta katalanek ere 90ean. Tontorrera iritsi ziren bakarrak Huescako "Club Peña Guara"koak izan ziren, 83an, "Ruta de los Aragoneses" delakoa irekiaz.

G.- Bide honetatik tentatu behar al duzue gaina?

E.- Ez, guk Japoniarren (56.a irudian) edo Mesner-Kammerlander (55.a irudian) ibilbidetik gora egingo dugu. Bata ala bestea hartu izotzaren egoerak erakutsiko digu. Bi "bideek" bat egiten dute III. Kanpamendutik gora. Kontua da, soka finkoak ahalik eta gutxien ezarri nahi ditugula, behar-beharrezkoak bakarrik, izatekotan ere II. eta III. kanpamenduen artekoa hornituko dugu, jeitsiera segurtatzearen.

G.- Beraz, orain ekainean abiatu eta...

E.- Islamabad-era iritsi eta 4 bat egunetara abiatuko gara Oinarritzko Kanpamendurantz; 11 egunetan zehar hurbilketa egin ondoren uztailleko lehenengo egunetan Gasherbrum Glaziarrean 5.200 metrotara Oinarritzko Kanpamendua 5.800 metrotara. Gero



Gasherbrum La izeneko lepoan, 6.600 m., II. Kanpamendua. Eta azkenik, 7.200era III. Kanpamendua. Hilabetera, abuztuaren lehen egunetan edo, gailurra lortzea espero dugu, eta bukaera alderako etxean izatea. Ez dugu oxigenorik erabiliko.

G.- Nola ikusten dituzue zeun buruak?

E.- Ondo. Ramon Elkoro ordiziarra, Mendi Federazioarekin prestakuntza fisikoari buruz hainbat hitzaldi eman dituen, gu entrenatzeko eskaini ziztaigun eta berak zuzendu digunaren arabera orain arte egindakoarekin alderatuz aldaketa handia suposatu du, lehen, eta batez ere, mendian ibili eta korrika egiten baikenuen; aurtan, berriz, indarra, erresistentzia eta gaitasun aerobikoa landu ditugu. Eskertu nahiko genioke Ordiziako Majori Kiroldegia bertako instalakuntzak erabiltzeko eman digun aukeragatik eta baita Ramoni berari ere.

G.- Besterik?

E.- Bai. Urnietako Udalari eman digun dirulaguntza dela eta, eskerrak eman nahi dizkiogu eta era batera edo bestera gurekin aritu diren guztiei.

 **Pilare Mujika**



1974ko Lazkaoko futbol txapelketa

“Izar Argia” taldea dugu argazkikoa, “Lagun Artea” taldea bezala, Fernando Salomonek zuzentzen zuena. 1974an Lazkaoko futbol txapelketan azkenak geratu ziren. Partidu guztietan egur latza hartu zuten eta txapelketako gol bakarra Asier Oiarbidek sartu zuen, penaltiz. Hain zuzen ere, berak utzi digu karteran hainbat urteetan eraman duen argazkia.

Zutik: Mikel Garmendia, Jokin Garmendia, Juan Joxe Etxeberria, Felipe Aldasoro eta Koldo Ibarlaburu.

Makurtuta: Joseba Zubiarrain, Mikel Albisu, Asier Oiarbide eta Alberto Eskisabel.



KOLDO TRIKITIXA ESKOLA

Giro jator eta atseginean
ikas dezazun zuk aukeraturikoa

☎ 88 50 85

LAZKAO

LOINATZ Taberna Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN

ZALBIDE SAGARDOTEGIA

Egunero zabalik
lgande eguerdietan ere bai



☎ 65 21 76

Abaltzisketa

UDA IKASTARO TRINKOAK

GOIZTIRI



EUSKALTEGIA

IKASTAROAK		MATRIKULA EPEA	MAILAK	ORDUTEGIA
3 ASTEKOA Uztailaren 3tik 21era	4 ASTEKOA Ekainaren 26tik uztailaren 21era	Ekainaren 5etik 22ra	Euskalduntzea Alfabetatzea EGA	3 ordu: 10-1 4 ordu: 9-1 5 ordu: 8,30-2

INFORMAZIO GEHIAGO

Ordizia: Santa Ana Ikastetxea, ☎ 88 91 74

Beasainen: Kale Nagusia, 5-3. ☎ 88 93 40


Udaletxeak ikasleei matrikula subentzionatuko die



MUJKA LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

ZURE
ETXEBIZITZA



KUTXAREN
HIPOTEKA

ETXEBIZITZA EROSTEKO MODURIK ERRAZENA

Hipoteka baten bila dabiltzan guztiei, KUTXAren HIPOTEKA aurkeztzen diegu. Urte askotako geure esperientzia guztia bere baitan biltzen duen hipoteka. Arazoak konpontzeko pentsatutako hipoteka. Ez arazoak sortzeko.

- INTERES-TASArengatik.
- AMORTIZAZIO-EPEArengatik.
- FINANTZAKETA-ZENBATEKOArengatik.
- Eta ZERBITZURIK ONENA eta AHOLKULARITZARIK OSOENA eskaintzen dizugulako. "ETXEBIZITZA EROSTEKO GIDALIBURU ERRAZA" bame dela, gure edozein bulegotan eskura dezakezuna.

Etxebizitza erosteko modurik errazena sakon-sakonetik ezagutu nahi baduzu, zatorz zeure ohiko **kutxa** bulegora edota deitu

900 41 20 20 telefonora. Eta hitzegingo dugu. Hipoteka baten bila bazenbiltzan, azkenean, ZORIONAK.



kutxa

gipuzkoa donostia kutxa
caja gipuzkoa san sebastián